

Familia ereduak

Bikoterik gabe ama izatea hautatu duten hiru emakumeren bizipenak

Kanaldude

Herritarren parte-hartzea oinarri duen telebista

Itziar Idiazabal

Unesco katedraren arduraduna
«Europar gero eta zalantza gutxiago dute: elebakartasuna arazoa da»

Inorako bidaia

Kukubiltxok memoria historikoaren gaia taularatu du

Larrun

Neurriko kultur azpiegituren premia

JEAN-MICHEL APATHIE

RTLko zuzendari-ordea

«Kalitatezko kazetaritza egin nahi baduzu, ate asko itxi behar dituzu»



Hilero dokumental bat proiektatuko da Euskal Herriko taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegietan, guztiak euskaraz edo euskarazko azpidatziekin.

Anima zaitez zure herrian antolatzaera! Doako proiektua da

☎ 943 37 15 45 · sustapena@argia.com

**Dagoeneko
proiektuarekin bat
egin duten elkarteak:**

- Bilboko Kafe Antzokia
- Arrasateko AED elkarte
- Urretxu-Zumarragako Gaztelekua
- Hernaniko Zumitza Taberna
- Zornotzako Barnetegia
- Maizpide Lazkaoko Barnetegia
- Lasarteko Jalgi Kafe Antzokia
- Getaiko Gaztetxia
- Zestoako Kultur Etxea
- Gabiriako Kultur Etxea
- Azpeitiko Sanagustin Kulturgunea
- Bilboko Kabia Kultur Elkargunea
- Goierriko Goiztiri AEK Euskaltegia
- Añorga Kultur eta Kirol Elkarte



Hilabete honetan ikusgai

Bidaia intimoak

Lau lagunek euskara ikasteko hartutako erabakiaz eta honek beren bizitzetan izan duen eraginaz egindako filma.



Jon Maia zuzendari,
Eriz Zapirain zuzendariaren albokoa.

✳ Bertaratuentzat
eskaintza bereziak
ARGIaren eskutik

**SARRERA
doan**

Datozen emanaldiak

- Oroitarria
- Lucio
- Sahara marathon





Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutxua. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iarnetza interaktiboa S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko abenduaren 25a, 2.304. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Lucio Urtubia:** «Lehen elizak liburutegiak erretzen zituen, gaur botereak gaztetxeak eraisten ditu». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Bikoterik gabeko amak.** Legeak aintzat hartzen ez duen familia eredua. JON TORNER / 5

Pertsonaia

- **Jean-Michel Apathie:** «Boterearen etengabeko konkista da politika». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Kanaldude.** Eskuz esku egina. ALEJANDRA GOIKOETXEA / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Euskal zinema eta eraikuntza nazionala. BEÑAT SARASOLA / 20
- **Ziurrak al dira ospitaleak?** FELIX ZUBIA OLASKOAGA / 21
- **Txandan** Bagara! ANDONI MUJICA / 21
- **Plangintza da giltza.** IÑAKI ODRIÓZOLA / 22
- **Hiruko txikian** Desagertu. JOXEMARI OSTOLAZA / 22
- **Zirtak** Aurrerakina. ANGEL ERRO / 23
- **Bertso berriak** Olentzerori jarriak. JULIO SOTO / 24

Erdiko kaiera

- **Antzerkia.** Inorako bidaia arriskuen itsasoan. OIER GUILLAN / 25
- **Dantza.** La Fundación: Kutxa beltzak 25 urte bete ditu. MYRIAM GARCIA / 28
- **Liburuak** X. ETXANIZ ERLE / 30 • **Diskoak** I. BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32 • **Abarrak** MIKEL GARCIA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Osasuna** J. AGIRRE / 36 • **Landareak** J. ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Finantza eta ekonomia krisia.** Badago alternatibarik. DANIEL UDALAITZ / 39
- **Itziar Idiazabal, UNESCO Katedraren arduraduna:** «Herri aurreratuetan hezkuntza ez dago botereko alderdiaren burutazioen menpe». MIEL A. ELUSTONDO / 42
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Grafiko hau opari mundu aberatseko suminduei. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- 18 urte gehiago bizi izan naiz. TERESA MONGE MARTINEZ / 50

OHARRA

Datorren astean ez da ARGIA kaleratuko.
Urtarrilaren 8an itzuliko gara. Bitartean, ondo ibili!



“Lehen elizak liburutegiak erretzen zituen, gaur botereak gaztetxeak eraisten ditu”

Lucio Urtubia | Igeltsero anarkista

Desertorea, banku-atrakatzailea,
diru-faltsutzailea... Baina gizon ona.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Gaizka Iroz

XXI. mendean anarkista?! Mesedez...

Zer nahiago duzu, bakea predikatu eta gerra praktikatzea? Hori elizak egiten du. Nigatik sermoi gutxiago eta ekintza gehiago. Anarkista izatea arduratsua izatea da, errespeturik merezi ez duen orori errespetua galtzea.

Ene jainko potoloa!

Anarkia putetxe handi bat dela uste duzu, ala? Anarkia sormena da, lana, maitasuna. Maitasunak egiten gaitu langile, sortzaile, eta orduan hasten gara borrokatzen. Nola ez zara borrokatuko zinez maite duzunaren alde?

Hori da munduko unibertsitateetan kontatzen duzuna?

Ulertezina da. 80 urtez, ezta igeltsero gisa ere, ez zidaten unibertsitatean sartzen uzten eta orain mundu osotik deitzen didate. Ekintzaile zintzo baten bizitzak burokrata baten txosten teorikoak baino gehiago balio duela sinisten hasi beharko dugu.

“Ekintzaile zintzo”-arena metafora da, noski.

Kausa ona bada ohorea da gaizkilea izatea. Ez dakizu zer plazer den bankuak lapurtzea, inprenta klandestinoak martxan jartzea, estatutak izorratzea... Normala iruditzen zaizu inoiz kolpe zorritik jo ez dutenak izatea aberatsenak?

Kapitalismoa, my friend.

Jende batek kalean lo egiten duen bitartean Cristiano Ronaldok bizkartzain ejertzito bat dauka. Unibertsitateak langabetu fabrikak

diren bitartean, telebistan ipurdia erakutsiz desafinatzen dutenak milionarioak dira... Jarraitzea nahi duzu?

Segi, segi, lagunak egiten.

Ni ez nago aberastasunaren aurka, aberastasunaren erabilera ankerraren kontra baizik. Munduan ez dago nahiko diru denak duin bizi ahal izateko? Gauzak garbi: dirua ez da papera besterik, eta bankuak gangsterrak dira.

Denborak arrazoia emango dizu, gainera!

Zer egin zuten orain urte bi Estatu Batuek dolarrak behar zituztenean? 60 tona billete ekoitzi eta zirkulazioan jarri! Hori guk aspal-ditik egiten genuen. Hori bai, ez dut uste Obama kartzelan sartu nahi dutenik...

Zu presidente izan bazina ez zintuzten sartuko.

Bizitza kontraesan handia da. Gutxien merezi duenak dauka boterea. Ez da besteak baino hobe, baina bizitza guztia darama helburu horren atzetik. Boteretsua izatearekin egiten du amets, nik lanera joan eta mundua aldatzearekin.

Rokero zaharrak ez dira inoiz hiltzen, baina anarkista zaharrak ere...

20 urte banitu, okupen mugimenduan, gazte-txetean, tailer libertarioetan... ibiliko nintzateke. Ikusi besterik ez dago. Lehen elizak liburutegiak erretzen zituen, gaur botereak gaztetxeak eraisten ditu. ■



Bikoterik gabeko amak

Legeak aintzat hartzen ez duen familia eredua

2008an elkarrizketatu genuen Edurne Pradilla, bikotekiderik gabe ama izatea aukeratu duen zumarragarra, artean haurdun zegoela. Hiru urte geroago, beraren eta beste bi emakumeren bizipenak jaso ditugu erreportaje honetan. Aitaren hutsuneaz eta guraso bakarreko familia ororen –eta bikote ugariren– buruhauste iturri den kontziliazioaz aritu gara, administrazioaz, eskolaz, ipuin klasikoez eta hamaika aurpegiko errealitateaz.

JON TORNER

AITAREN HUTSUNEAK seme-alabengan izan dezakeen eragina, egonkortasun ekonomikoa eta lanaren eta bizitza pribatuaren arteko kontziliazioa dira bikotekiderik gabe ama izatea aukeratu duten emakumeen kezkarik handienak. Badira mamu gehiago, gizarteak euren gan proiektu dezakeen begirada, esaterako, baina horiek erabakia hartu bitarteko hausnarketa prozesuan uxatzen dituzte sarri. “Duelu prozesua” deitu dio Esther Canarias bilbotarrak. Semea, Ibai, intseminazio artifizial bidez sortu zen duela bi urte eta erdi: “Nire erabakiak umearengan izango zuen eraginaren inguruan luze pentsatu nuen. Haurra bikotekide batekin izatea espero nuen, baina azkenean beste bide bat aukeratzen duzu... Duelu prozesu bat dago, nire buruarekin nor-gehiagoka aritu nintzen erabakia hartu nuen arte, eta koxkortzen doan heinean semeak ere galdera askoren erantzuna bilatu beharko du”. Funtsezkoa ei da gauzak naturaltasunez kontatzea, hasiera-hasieratik egia esatea.

DANI BLANCO



Edurne Pradilla, 2008ko erreportajerako egindako argazkian.



Ezkerrean, goian, Edurne Pradilla Enekorekin; behean, Esther Canarias, Ibairekin; eta hitz hauen gainean, Rosa Maestro, Albarekin.

Hala egin du Rosa Maestro madrildarrak. Masola.org webgunearen zuzendaria da, eta bi neska-mutilen ama. Alaba intseminazio bidez izan zuen duela zortzi urte, eta adopzioan hartutako semeak hiru urte pasatxo ditu: “Alabari egia kontatu diot txikitatik, ez dut beldurrik izan haziaren emaileari buruz hitz egiteko. Sentimenduek dute pisu gehiena hasieran, umeari transmititu behar zaio dena ongi dagoela, gustura zaudela berarekin. Geroxeago, ulertzeko gaitasun handiagoa dutenean, gauzak beste modu batera azaldu behar zaizkie”. Adopzioen kasuan diskurtsoa beste era batekoa da, aitaren figuraz mintzatzeari haren jatorriaz hitz egin daitekeelako eta, horrek, neurri batean bederen, umeari jakin-mina ase dezakeelako.

Errealitatea ez da ipuinetakoa

Nola azalduko dizkiogu gauzak umeari? Galdera horri amak erantzun beharko dio, pilatutako informazioa eta beste emakume batzuen esperientziak abiapuntutzat hartuta, baina haurraren inguruan pertsona heldu gehiago daude. Edurne Pradilla zumarragarriak 2008ko udazkenean izan zuen semea, Eneko, intseminazio bidez. Haurdun zegoela elkarriketa egin genion ARGIA (2152. zenbakian) eta, besteren artean, luze mintzatu zitzaigun esko-

laren paperaz. Orduan zioenez, hezitzaileek gutxitan entzundako galderei erantzun beharko diete —amek bezala—, eta horretarako prest egon behar dira. Berarekin izan gara berriro eta kontatu digu hainbat hezitzaileekin hitz egin ostean, lasaiago dagoela: “Irakasle batzuek adopzioan hartutako seme-alabak zituzten, horietako batzuek bikotekiderik gabe gainera, eta klasean haur adoptatu gehiago zeuden, baita gurasoak bananduta zeuzkaten neska-mutilak ere, anaia-ordeak eta arreba-ordeak... Irakasleak kontziente dira familia eredu desberdinak daudela”.

Aitzitik, Maestrok dioenez, eskola-ereduak familia klasikoa du ardatz: “Hezkuntza-eredua aldatu egin behar da, ezin dugu jarraitu aitaren eta amaren egunak ospatzen. Duela gutxi umeen senitartekoak ezagutzea helburu zuen formularioa betetzeko eskatu zidaten ikastetxean, eta lehen lerroan zera jartzen zuen: ‘Ni ... naiz, nire aitak ... du izena’. Ederto hasten gara! Naturalagoa litzateke ‘Nire familia osatzen dute: ...’ jarriko balute; umeei hainbeste azalpen eman beharrik ez lukete izango. Nire alabak ez du horretarako erreparorik, baina... gizartearen aldaketara egokitu egin behar gara. Gainerako haurrek ere egoera normaltasunez bizi dezaten, ikasgela barruan gauza batzuk aldatu egin behar dira”.

Semearen heziketaz mintzatzean, duela gutxi erosi zuen ipuin klasikoen bildumarekin “sekulako desengainua” eraman zuela azaldu digu Pradillak: “Ez soilik maiz ageri den familia eredu tradizionalagatik. Gizon eta emakumeen paperak arras desberdinak dira. Protagonista, akzioa daramana, gizonezkoa da ia beti, eta emakumea izan daiteke sorgina ala printzesatxoa; alegia, emakumea gaiztoa da, ala printzearentzako saria. Ipuinen bidez umeek errealtatea uler dezakete, eta istorio hauek ez dira oso lagungarri. Gurean ni naiz etxera dirua ekartzen duena, etxeko konponketak egiten dituen, semea medikura eramaten duena... eta ipuin hauetan neskak egiten duen gauza bakarra ezkontzea da!”.

Hezitzaileek, bestalde, aitaren hutsunea Enekok nola bizi duen galdetzen diote. “Berarentzat aita beste pertsona bat da, berak aukeratutako norbait, osaba, aitona...”. Umeengan ohikoa da aitaren figurarentzako ordezkioak bilatzea, euren familiari buruz hitz egiteko balio baitie. Dena den, tentuz jokatu behar dela diosku Maestrok: “Hauraren inguruan gizonezko erreferenteak egotea garrantzitsua da, baina nire ustez okerra da figura maskulino bat aitaren figurarekin nahastea. Ez da sana aitona edota lagunen bat aitarekin nahastea, aitona aitona da, osaba osaba, amaren bikotekidea amaren bikotekidea... Gauzak zuzen eta naturaltasunez azaldu behar zaizkie umei. Batzuetan gustatuko litzaieke aita bat edukitzea, ‘berarekin bizikletan ibiltzera joateko’ adibidez, baina ez dute trauma edo gabezia bat bezala bizi”.

Malabare jokoa

Gabezia hori nabarmena izan daiteke, ordea, lana, umearen zaintza, etxea eta norberarentzako denbora bateratzeko garaian. Kontzi-

**“Zumarragako igerilekuan
badago guraso bakarreko
familiarentzako abonua;
familiarra baino euro bat
merkeagoa da, baina gutxienez
aintzat hartzen zaituzte”**

EDURNE PRADILLA

liazioa “fartsa” bat dela esan digute Masola.org webguneko zuzendariak eta Canaria-sek. Bi gurasoek etxetik kanpo lan egiten dutenean ere lana eta bizitza pribatua kontziliatzeko modurik ez dagoela diote. “Eskolako ordutegiak eta lanekoak ez datoz bat, haurtzaindegiak garestiak dira eta etxetik urrun daude, eskolaz kanpoko jarduerak, etxekolanak...”, diosku Madrilgo enpresa bateko komunikazio departamentuan ari den Maestrok: “Zorionez ordutegi malgua dut, eta soldata nahiko ona; zaintzailea kontrata dezaket ordu batzuetarako”. Bilbotararentzat malabare jokoa da: “Autonomia naiz eta sarri bidaiaitzen dut Madrilera-eta; gurasoek laguntzen didate batzuetan”.

Amatasunari aurre egitean zailtasun handiagoak izan ditzaketen emakumez oroitu da Maestro: “Badira neska gazteagoak, haurdun geratu ostean bikotea apurtu eta egoerari bakarrik aurre egin diotenak. Baliabide ekonomiko gutxiago dute, bikotekidearen babesa ezustean galdu dute... Oro har, gobernu eta instituzioek ahaztuta daukate guraso bakarreko familiak. Antza, ez dugu dirurik ematen. Begira gay kolektiboa. Prestigio handiagoa du, dirua ematen duela; guraso bakarreko familiok arazoak besterik ez ditugu ematen”, dio ironikoki. Madrilarra kexu da, guraso bakarreko familia geroz eta gehiago dauden arren, eta mota desberdinetakoak (ikusitako koadroa), elkarren artean batasunik ez dutelako: “Ez dugu presioa denok batera egiten eta instituzioak horretaz baliatzen dira”. Pradillarentzat ere, laguntza edo babes eske joatean, kopurua garrantzitsua da. “Gu oraindik gutxi gara”, esan digu bikotekiderik gabe ama izatea aukeratu duten emakumez, “saiatu gara Guraso Bakarreko Familien Elkartearekin adostasun batera hel-



tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

tzen instituzioen aurrean indarra egiteko, baina oraindik ez dugu lortu”.

Espainiako Estatuko Madres Solteras Por Elección (MSPE) elkartearen 265 emakume inguru dira. Bazkide izateko urratsa eman ez duten emakumeei zuzenduaz, Pradillak dio inportantea dela taldean biltzea, ez soilik administratibotik laguntzak lortzeko, baita euren artean antolatu, topaketak egin eta umeek beste erreferente batzuk izateko ere. “Esperientzia trukateta aberasgarria da oso, ama zein umeentzat”, berretsi digu Canariasek. Pradillaren hitzetan Euskal Herrian eta Katalunian gauza batzuk bertako erakundeek –diputazioei, Jauralaritzari...– eska diezaiekegu: “Pentsatzen ari gara ea komeni zaigun MSPERen barruan lurralde-ordezkaritza bat sortu eta haren bitartez gure kontuak mugitzea”. Hogei bat emakume euskaldun dago elkarte horretan.

Kide ugariko familia

Laguntza publikoak mintzagai, kide ugariko familiaren legeaz hasi da solasean Maestro. 2010eko azaroan, Espainiako Gobernuak (PSOE) eta IUk adostu zuten bi seme-alaba edo gehiago dituzten guraso bakarreko familiak kide ugariko familia gisa onartzea, eta Kongresuak emendakina onartu zuen 2011ko Estatuko Aurrekontu Orokorrek akordio hori jaso zezaten. Aldiz, ez zioten lekuri egin, eta badira lauzpabost urte halaxe dabiltzala, IUk salatu duenez. “Urteroko borroka da”, esan digu Maestrok, “urrian hitz ematen digute, eta urtarrilean gezurtatu egiten dute”. Bikoteek hiru umerekin eskura dezakete titulua, eta alar-

gunek birekin; eurek ordea ez. Madrildarrak gogorarazi du, bestalde, bikoteari ume bategatik 3.000 euro desgrabatzen zaizkiola, eta eurei 2.000 euro pasatxo. “Oraindik ez dakit zergatik. Laguntzak errentaren arabera ematea litzateke egokiena, eta ez familia ereduaren arabera”, dio mindurik. Horren harira, Donostiako neska baten kasuaz egin digu berba Pradillak: “MSPERen foroan kontatu zuen nola igerilekuko familia-abonuegatik ordaindu behar zuena ia-ia banakako bi abonuek beste zela. Zumarragan badago guraso bakarreko familientzako abonua; familiarra baino euro bat merkeagoa da, baina tira, gutxienez aintzat hartzen gaituzte”.

ROSA MAESTRO

Osasun zerbitzu publikoetan laguntza bidezko ugalketa prozesuak doakoak izatea da MSPE elkartearen beste eskaeretakoa bat. Maestrok azaldu digunez, ugalkortasun arazorik ez duteenez, osasun zerbitzu pribatuetara jo beharra izaten dute batzuek. Osakidetzan egin ahal dira prozesu horiek, Gurutzetako ospitalean. Nafarroan ordea, Osasunbidean, ez.

Deabruaren abokatu paperean sartuta, esan diogu zenbaitzuk “kapritxo” bezala hartzen dutela era honetan ama direnen erabakia (*Madres solas por elección. Análisis de la monoparentalidad emergente 2004-2007* / Espainiako Gobernuak; 96. orrialdea). Azaldu digu euren hautua ikuspuntu desberdinetatik juzgatu daitekeen arren, oro har errespetuz jokatzeko duela jendeak: “Gizarteak ez du seme-alabak dituen emakumea diskriminatzen soilik bikotekiderik ez duelako, orain dela 50 urte gerta zitekeen bezala. Dena den, horretan aurreratu den moduan, instituzio publikoetan aitziki-

Guraso bakarreko eredu ugari

Erreportajearen hizpide ditugun hainbat kontu familia eredu guztiei eragiten die. Bikotekiderik gabe ama izatea aukeratu duten emakumeei buruz aritu gara bereziki, urrats hori euren borondatez eman zuten hiru neskaren esperientziaz. Guraso bakarreko familia eredu gehiago dago, ordea. Sarri halabeharrek markatzen du ama edo aita horien bidea, dibortzioek, bikotearen heriotzak... Eta badira emakume batzuk, ezustean haurdun geratu eta bestelako aukera batzuen aurrean (abortua, umea adopzioan ematea...) aukeratu dutenak umea bakarrik izatea.

Datuak

Espainiako Estatuan, duela hamar urte, guraso bakarreko familiak %14,6 ziren; familia horien arduradun

emakumeak ziren gehienetan, Europa osoan bezalaxe. Gizonezkoak %10 dira. Horien artean, alargunak eta dibortziatuak daude batetik, eta guraso bakar izatea aukeratu dutenak bestetik, izan umea adopzioan hartuta, edo emakume baten sabela alokatuta –normalean AEBetan–, haurra hark erditu dezan. Bigarren multzo horretakoak gutxiengo dira oraindik.

Guraso bakarreko familien kopuruak gora egin du eten-gabe. 2005ean, bestalde, jaiotako umeen %26 ama ezkongabeek izan zituzten –horrek ez du esan nahi bikotekiderik ez zeukatenik–. 35 urte edo gehiagoko emakumeen kasuan, kopurua %20koa da. Frantziako Estatuan %42,3koa da zifra hori, eta Europako batez bestekoa %25,6 da. Europa iparraldeko herrialdeek dituzte ehunekorik altuenak.



INIGO AZKONA

Ipuin klasikoetan gizonaek eraman ohi du akzioaren pisua, eta sarri emakumezkoek egiten duten gauza bakarra ezkontzea da. Errealitateak ipuinekin zerikusirik ez du, ordea.

neratu beharra dago. Duela lau pabost urte lortu zen, adibidez, jaiotza-partida egiterakoan aitaren izena asmatu behar ez izatea. Harrigarria da zein mantso goazen”.

Adopzioen kasua jarri digu adibide. Legeak dio bikotekiderik gabeko pertsonak umea adopta dezaketela, baina adopzio-fasean traba tekniko-administratibo gehiago jartzen zaizkie, antza, umeek gabeziak sufrituko dituztelako bi guraso izan ezean, nahiz eta hainbat ikerketak aurkakoa erakutsi duen. —hala frogatu zuten Guraso bakarrek familiari buruzko nazioarteko II. sinposioan, Bartzelonako Unibertsitatean, 2011ko urrian—. Orain urte batzuk berari gertatutakoa kontatu digu ama madrildarrak, oraindik harrituta eta haserre: “Adopzio fasean teknikariek, psikologoek, galdera mordoa egin zidaten, bikotei baino are gehiago, euren gidatutako jartzen duelako teoriarik ez gaudela emozionalki senar-emazteak bezain orekatuta. Psikologoak aditzera eman zidan bizimodua egonkortu arte, bikotekidea izan arte, ezin izango nuela umea adopzioan hartu. Hala ere,

aukeraren bat izan nezakeela esan zidan, baldin eta arazoak zituen ume bat (down sindromea, adibidez) hautatuko banu. Txoratu ote zen galdetu nion. Ez banintzen gai ume normal bat hezteko, nola demontre heziko nuen ba arazoak zituen haur bat? Izugarria iruditzen zait psikologoek aurreiritziak izatea. Eta pentsa umea adoptatu nahi duten bikotekiderik gabeko gizonen kasuan. Eurentzat are zailagoa da”. Gauzek, dena den, hoberantz egin dutela uste du, EAE eta Katalunia bezalako erkidego batzuetan behintzat. “Hemen, Madrilan, elizarekin egin dugu tupust!”.

Elkarrizketatu ditugun hiru emakumeek bizitzak eman dizkien aukerez baliatu eta familia osatu dute. Nork daki etorkizunean beste familia eredu baten parte izango diren; bitartean, euren hautua beste edonorena bezain baliagarria dela erakusten dute egunero-egunero. ■

argia.com Webgunean, *Madres solas por elección* txostena PDFan.



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

BIZKAIA BIZIA

Jean-Michel Aphantie

«Boterearen etengabeko konkista da politika»

“Sorlekua utzirik gazte nintzalarik, Pariserat joan nintzen korajez beterik...”.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

14 urterekin eskola utzi eta zerbitzari lanetan zenbiltzan.

1970eko hamarkadaren hastapenak ziren, ez zen lanik falta, eta eskolan distirarik ez zutenak lanean hastea zen ohikoa. Zerbitzari aritu nintzen lehenik, autoak saltzen gero, eta nire inguruko kazetari gehienek bestelako iragana badute ere, bideak ez dit helmugaren gozoa zapuztu. Hamar urtez lan munduan ibili ondoren, pilota bigarren punpan atzema-tea ez dela beti txarra pentsatu, eta berriz ekin nion eskolari. Ez zen bokaziozko motibazioa, arrakalatu ninduen gaizki-izate bat baizik. Bizitzan egun osoan tragoak ateratzea baino zeregin hobeak zeudela iruditzen zitzaidan, eta irudipen horrek bat egin zuen Mitterranden botere hartzearekin. Aldaketa-ren eskuragarritasunaren sinboloa zen, eta bizitza oro alda bazitekeen, nirea ere bai. Orduan ez nintzen bereziki politizatu, ez nuen Mitterranden alde bozkatu ere egin, baina gau hura inarrosaldi intimo bat izan zen, bizitza aldatu zidan shock bat, oraindik hitzez adierazi ezin dudana zinezko kontzien-tzia hartze bat.

**Horrek bultzatu zintuen, ikasketei berrekinik, alderdi sozialistako afiliatu eta militante bihurtze-
ra?**

Orduan ezkerzale sentitzen nintzen, politika neure egiteko grina nuen, politikaz mintzatze-koa, politikaz pentsatzekoa, politika bizitze-koa. Lau urteko militantzia, alta, ekintza poli-tikoak ez ninduela erakartzen irakatsi zidan, ez nuela hautetsi izateko tirrik, eta benetan axola zitzaidana politika esplikatze ahalegin intelektuala zela. Zuzenbide ikasketek kazeta-ritza politikoaren sua piztu zidaten, eta Borde-

leko kazetaritza eskolan onartu ninduten egu-nean utzi nion afiliatu eta militante izateari. Ordutik ez dut behar hori sentitu. Egun, ardu-radun politikoezko kazetaritza distantia lan-tzen dut. Ezkerreko zein eskuineko, ez dut inoren borroka politikorik aitzina eramaten. Horrek ez du esan nahi nire iragan militanteaz damutzen naizenik. Ez naiz ezeren lotsa. Alderantziz, eraikuntza eta formazio pertso-nalaren parte da, politika eta bizitzaren eskola aberatsa, eta nagoen tokira iristeko, ez dut sekula nire iraganik mozturatu.

Zertara dator objektibotasuna eta neutraltasu-na nahasteko joera orokorra?

Objektibotasuna ez da existitzen. Inor ez da objektiboa. Kazetaritza subjektibotasunaren maisutasuna da, bakoitzak nondik herren egi-

Nortasun agiria

1958ko irailaren 8an sortu zen Mitikilen (Zuberoa). Zuzenbide publikoan eta kaze-taritzan lizentziatua, prentsa idatzian egin zituen lehen urratsak, irratira salto egin aurretik. Egun, RTL, Frantziako irati entzu-naren politika-burua eta erredakzio-ko zuzendariordea da, goizero elkarriketa politikoaren egilea izateaz gain. Horretaz gain, arratsaldero Canal+ kateko *Le Grand Journal*en kronika politikoak egiten ditu. *Liberté, égalité, réalité* liburua idatzi zuen 2006an, eta urteko elkarriketagele politiko onena izendatzen duen Philippe Caloni saria jaso berri du.





ten duen onartzea, eta subjektibotasun horri hitza baimentzea. Hori hala, gozoak ala gaziak izan, gertaerek agintzen dute beti, eta horiek ahal bezain zehatz eta zorrotz kontatzen jakin behar da. Ez da ahantzi behar kazetaritza, lanbidez gain, ofizioa ere bada. Horregatik diot subjektibotasunaren maitasunak distantziara daramala. Niri ez dit zirrara berezirik eragingo hurrengo hauteskunde presidentzialetako emaitzak. Hiritarrek aukeratuko dute, boto-kutxetako emaitzek, nik ez dut deus deliberatuko. Nik zuri bozkatzeko dut kazetaria naizelako eta hiritarren lana delako erabakitzea, ez nirea. Horrek ez du esan nahi iritzirik ez dudarik, distantzia hartzea lehenesten dudala baizik. Alabaina, kazetari oro ez da sinesmen horretakoa. Batzuk argi eta garbi busti eta engaiatzeko dira, inor engainatu gabe, eta euren aldarrikapenak euren kazetaritza lana baldintzatzen arren, zilegi zait. Enbusteroak besteak dira, itxura eta forma guztiak gordez, kausa jakinen alde sator-lanean ari direnak.

Zenbateraino da egia medioek populazioa nahierara darabiltelako ustea?

Iritzi publikoa oso eraikuntza konplexua den heinean, erabateko gezurra da. Medioak oso alderdikoiak badira, konbentzitu parrokoa bat baizik ez daukate, eta ezin dute populazioaren izaera aldatu. Iritzi publikoa benetan zizelkatzen dutenak gertaerak eta ele politikoaren jabeak dira. Adibidez, urteak dira egunkarietan estatuen zorrari buruz mintzo garela, aspalditik dago egoeraren diagnostika borobilduta, baina gertaeraren larritasunak baizik ez du denek kezka bihurtu. Prentsak horri buruz idaztea ez da aski izan arduradun politikoak aktibatzeak, eltzearren gainezkatzeak soilik inposatu die gaia. Beste

Lubakia du bulegoa.

Telebista, ordenagailu eta dossier meten gibelean, apenas ageri den bera. Hizketan hasi arte. Parisen gutxietsia den azentu kantariak salatzen du bere kazetari izaera: odola hotz, pausoa motz eta begirada zorrotz.

exenplu bat: beti esaten da medioen gehien-goia Fronte Nazionalaren aurkakoa dela, baina ez dugu ekidin ildo politiko horren sus-traitzea eta, 2002ko hauteskunde presidentzialetan, Le Pen bigarren itzulira igarotzea. Horregatik diot medioen indarra oso erlatiboa dela. Izan ere, zabaltzen dutena denek begietara egia izatean datza medioen boterea. Alderdikoiak izanik euren boterea pitzatzen dute, eta alderdikoiak ez badira, oso pisu gutxi daukate iritzi publikoan.

Orduan, zergatik iruditzen zaigu botere politiko eta ekonomikoek medioen kontrola eskuratu nahi izaten dutela?

Kontrol hori benetan eskuratzen dute? Zein da esfera politiko eta ekonomikoari kalte egingo liokeelako medioek ezkutatu luke ten informazioa? Goiz ala berant, dena jakiten da, eta medioen kontrola oso nekeza da gure demokrazietan. Medio anitz dauden momentutik, botereak ezin ditu denak kontrolatu, eta bakarren bat menean balu ere, beti egongo da medio bat besteak isildu

duena kontatzeko prest. Hori hala, isildu denak arrastoan sartu beharko du bere sinesgarritasunari eusteko. Erabateko kontrola ezinezkoa da. Egon daitezke limurtze jokoak, batzuetan hain nabarmenak izaki errealtate nahasi eta ustel baten sentsazioa

eman dezaketena, baina funtsean ez da halakorik. Esaterako, asko hitz egin da orain urte batzuk Sarkozyren transgresioek eskaini zizkieten azal eta titular arranditsuei buruz, baina lehendakari izendatu dutenetik, prentsa oso gogorra izan da berarekin. Zergatik hainbesteko aldaketa bi-hiru urtean? Transgresioen aroa ez zelako zintzoa izan, esku-sartze nabarmena egon zelako. Dirudiena baino sinpleagoa da dena,

"Beti egongo da medio bat besteak isildu duena kontatzeko prest"



eta arrain gorrien memoria badugu ere, denborak edozeini jartzen dizkio oinak lurrean.


Zuk esana: “Politikan, sniper-ak daude, traizioak, konplotak, orotariko arriskuak. Irrazionala atzematen da, bakardadea, drama. Politikak tragediarako ematen du”.

Raymond Aron kazetari eta politologo frantsesak, Giscard d’Estaing lehendakari gazte aukeratu berriari buruz zioen: “Ez daki poli-

tika tragikoa dela”. Politika arazo arantzatsuen kudeaketa da, zailtasun eta traba metaketa izugarri bat, testuinguru beltzetan egin beharreko hautu korapilatsuak... Oso egun zoriontsu gutxi dago politikan. Historia bera ere tragedia politikoz osatzen da, oso garai bare eta patxadatsu gutxi dago, ez dago maletak lurrean pausatu eta “gaur jai!” pentsatu dezakezun unerik. Zorigaitzeko jarduna da. Ez zuen alperrik esan, 1936an, Fronte Popularreko diputatu batek, “azkenean,


EINSTEIN vs. BOHR

MUNDUA ULERTZEKO BI MODU



Albert Einsteinek ez zituen onartu mekanika kuantikoaren ondorio batzuk, baina oraindik ez da frogatu ondorio horiek faltsuak direnik. Niels Bohr-ek, aldiz, defendatu egin zituen, eta eztabaida luzeak izan zituzten. Bi genioen arteko eztabaidak ulertzeko liburu egokia da hau.







Zizpiak

QUANTUM EINSTEIN, BOHR
eta errealitatearen izaeraren inguruko eztabaida handia.

Egilea:
Manjit Kumar



ELHUYAR
edizioak

WWW.ELHUYAR.ORG/EDIZIOAK

Zelai haundi, 3. Osinalde Industrialdea. 20170 Usurbil (Gipuzkoa) Tel.: 943 36 30 40 · www.elhuyar.org



Gipuzkoako Foru Aldundia

AZKEN HITZA

Prestigioa

“Kazetariak baino askoz indar handiagoa du ordezkatzeko duen medioak. Medio garrantzitsuetan ari zireno oso ospetsuak ziren kazetari andana ikusi dut euren kontura hasi eta askoz lan gutxiago egin. ‘RTL-tik deitzen dizut 7:50etako elkarriketarako’ esan, eta ia edonork hartzen zaitu kontuan”.



zailtasunak hastera doaz!”. Nonbait, bizitzaren metafora da politika, baina bizitzan egon zaitezke piszina ertz batean maite duzun jendearekin zorion uneak partekatzen. Politikan halako gutxi dago, herri batean boterea lortzeko modu bakarra zure komunitatean boterea lortzea baita, eta mundua konpontzen hasterako, lagunei egin behar diezu aurre. Boterearen etengabeko konkista da politika.

Boterearen etengabeko konkista horretan zer harreman dute politikari eta kazetariak?

Egon daiteke prentsa-buruen jardun intrusi- bo bat, ez baita txikia politikari bakoitzaren inguruan ehuntzen den komunikazio sarea. Hala ere, zure esku dago zure lan-esparrua nola eta zenbateraino defendatu. Ez gaitez- zen engaina, kalitatezko kazetaritza egin nahi baduzu, ate asko itxi behar dituzu, zure askatasuna zaindu, baina horrek ez du esan nahi komunikazio aparatuekin zubiak eraitsi behar dituzunik. Ni pausatu behar diren galdera guztiak pausatu ahal izateko egoera bermatzen saiatzen naiz.

Batzuetan, prentsa-buruei garbi esan behar zaie artifiziala dela galdera bat ez pausatzea, isiltasunak are oihartzun handiagoa ematen diola mututako itaun horri. Horregatik, ez dago tranparako tarte handirik. Gainera, zure lanean poza eta laguntasuna txertatzen badituzu, berehala egiten dizu sinesgarritasunak ihes, eta ezin duzu zure kapital behi- nena hain merke saldu. Alferrik da mikrofo- no aurrera norbait ekartzea hasi aurretik eskatutako dena eman badiozu. Lainoen koloreari buruz aritzeak ez du piperrik balio kazetariarentzat, baina ezta arduradun poli- tikoarentzat ere. Fantasia asko dago kazetari eta politikarien arteko harremanen ingur- uan, baina bakoitzak egin behar du berea, ez dago besterik. Obligaziozko bizikidetz- a da gurea, baina independentziazatik eraikia, ez menpekotasunetik.

“Nagoen tokira iristeko, ez dut sekula nire iraganik moztortu”

Eguno kazetaritzak gaurkotasunarekin duen menpekotasunak ez al darama notizia ez dena ere lerro-buru bihurtzera?

Aktualitatea beti aldatu da azkar. Ez pentsa teknologien erruz gaudenik informazioz gainezka, azkartasunaren gurpilean zer-suma eta zer-gerta. Sentipen hori informazioen larritasunaren antsia baizik ez da. Albiste zenbaitek gure bizitzetan izugarritzko eragina dute. Basakeria ekologikoez, esaterako, gure bizi- modu guztia jartzen dute kolokan, azken 150 urteetako industrializazio itsuari sekulako danbatekoa ematen diete. Hori jasanezina zaigu. Fukushima sortzen digun ikarari gehitzen badiozu masako langabezia, Grezia aspirina bat bezala desegiten ari dela... Tren- putxartze orokor bat sortzen da. Saturatuta gaude, baina ez gaitu informazio kopuruak saturatzen, albiste batzuen jasanezin- tasun graduak baizik. Gai horri dago- kionez, 1930eko hamarkadako indar- keria giroa bizi izan zutenek gure antzeko sentipenak biziko zituzten, nahiz eta informazioa hedatzeko bideak bestelakoak izan. Guk bezala, ihes egiteko gogoa izango zuten, egunkaririk ez zabaltzekoa, irratirik ez pizte- koa, dena haizea hartzera bidaltzekoa. Krisi egoerak beti dira latzak, higadura mentala dakarte, baina zoritxarrez, “popatik kazeta- riak!” oihu eginez ez duzu deus aldatzen.

Udaberri arabiarrek edo suminduen mugimen- duak ez dute ezer aldatu?

Ekintza politiko desberdinen bilaketa etenga- bea da, ez da gure garaia ikur, eta nahi ala ez, bilaketa hori boterearen delegazioarekin amaitzen da beti, ez dugulako oraindik siste- ma hoberik kausitu. Suminduen mugimendua arras interesgarria da, sustrai ulertterraza du, baina ez antolatzeko borondate horren baitan gehien antolatzen den herrialdeko hautes- kundeetan PP-k inoiz lortu duen gehiengo osoena erdietsi du Espainian. Hala, sumin- duen mugimenduak demokraziaren oinarria-

ren funtsa aldatu du? Bistan da ezetz. Udaberri arabiarrarena desberdina da guztiz, baina zer gertatu da? Askatasun indibidualak aldarrikatzen dituzten gizarteak gailendu dira, baina aldarrikapen horiekiko dudako koherentzia dutenei eman diete boterea. Beraz, hor ere funtsezko aldaketa gutxi. Demokrazien historian aski ohikoa da ordezkaritza politikoa eskasa kontsideratu eta momentuko orijinaltasunak ezaugarritutako mugimenduak sortzea, baina demokrazia zuzenaren fantasia ezin plantan ezarriz gabiltzaneez, beti norbaiten esku uzten dugu boterea, ez baitugu arazoak konpontzeko beste modurik atzematen.

Mendebaldeak ere ez du bere krisia konpontzeko modurik atzematen.

Mendebaldeak bizimodu bat asmatu du, gaitasunaren aurkako eta zahar-sarien elkartasun funtsetan oinarritutako antolaketa soziala, bizi-baldintzen hobetzeko perspektiba etengabe bat, eta 1970eko hamarkadako petrolio krisietatik hona, herrialde guztiek zeuzkaten eta ez zeuzkaten aberastasunak ustiari dituzte bizi estandarte horri eusteko. Heldu behar zena heldu da, alta, eta finantziario bidea agortu denean, kale-itsu batean

**“Kalitatezko
kazetaritza egin nahi
baduzu, ate asko itxi
behar dituzu”**

sartu eta itzulia nola hartu asmatu ezinik gabiltza. Bestela esanda, Mendebaldeak jende jakintsu anitz formatu du aurrerapen soziala zehazteko, baina gaur da eguna gure jakintzak ekoitzi dezakeena finantzatzeko aski aberastasun ez duguna. Hori nola konpontzen den? Auskalo.

Ederra panorama hurrengo maiatzeko Frantziako hauteskunde presidentzialerako.

Kanpaina zatarra izango da, zaila, latza, gogorra. Harrituko nintzateke promes handien kanpaina izatea. Kudeatu beharreko krisi gehiegi dago: finantzarioak, ekologikoak, diplomatikoak... Tempo historikoetan, garai baketsu eta gatazkatsuak daude, baina oraingoa, lurrikararen epizentroa da. Hori gutxi ez eta politikari eta herritarren arteko elkarrikeria ez da sana. Zergatik ez zaio boterea ematen promesik egiten ez duenari, bete gabeko promesek etsipena eragiten badute? Errealismo politikoa izan daitekeenaren gaineko ikuspegi falta itzela daukagu. Hortaz jakitun, politikariek boterearen inguruko pedagogia egiten dute, ez zailtasunei buruzkoa. ■



**ZALANTZARIK
GABE
KULTURA**

2012



www.elkar.com

elkar

Eskuz esku egina

Miarritzeko Jai Alai frontoian zuzeneko emankizunerako probak egiten harrapatu ditugu Kanaldude telebistako langileak, kamera eta kable artean. Egun garrantzitsua dute, lehenengo aldiz zuzenean emateko saiakera dela kontatu baitigu Ximun Carrere Kanaldudeko arduradunak.

ALEJANDRA GOIKOETXEA

Argazia: Gotzon Elizburu

EUSKARA HUTSEAN, herritik eta herriarentzat egindako telebista da Kanaldude, Internet bidez eskaintzen dena. Astean 7.000 bisitari inguru ditu kanaldude.tv webguneak. Lan molde eraginkorra du hedabideak, eskuz esku lan egiteko prest dauden kolaboratzaile ugari hartzen baitute parte albisteen egituraketan. Miel Zeleztino joan den udaberrian hurreratu zen Kanaldude proiektura eta telebista-kableekin aurrera eta atzera dabil gaur, frontoian. Kultur elkarte batekin konparatu du hedabidea: “Kultur dinamika gertutik ezagutzeko para- ezin hobea eskaintzen dit”.

Zortzi langilez eta gertuko hamabost kolaboratzailez osaturiko sareak hartzen du bere gain Kanaldude webgunea eguneratzeko ardura, Iparraldean gertatzen dena bertatik bertara kontatzeko. Lasako Markotx kamiseta egileari buruzko erreportajea,

Lekorneko etxaldeen duten etorkizunari buruzko kezka azaltzen duen elkarrizketa sorta, Donazaharreko adinekoren egoitzara egindako bisita gidatua, Bidarraiko mendiko etxaldeetan gazte gutxi dagoela adieraziz eta mendia kudeatzeko gakoak emanez bildutako iritziak... ikus daitezke webgunean, Tokika izeneko sailean, guztiak ere herritarrek pentsatuak, diseinatuak eta, sarri askotan, grabatuak. Kanalduderen eta landutako bideoen izaieran bi ezaugarri nabarmendu dituzte arduradunak: tokikoa eta parte-hartzailea izatea.

Herritarren esku

Egin beharreko bideoak hiru hilabete lehenagotik hasten dira lantzen, egokitzen den herrian. Bertan, parte hartu nahi duen jendearekin bilkura antolatzea da lehenengo urratsa eta hortik aurrerakoa herritar bako-

Elebista bideo-kazetatik sareko Kanaldudera

1997. urtean hasi zuen bere bidea Kanaldude telebistak. Urte horretan ondorioztatu zuten irratiaz eta paperezko prentsaz gain ikus-entzunezko komunikazio tresna bat garatzea komeni zela eta Elebista sortu zen, hilero kaleratzen zuten bideo-kazeta. Harrezkero, telebista igorgailuak erabilita Ipar Euskal Herriko txoko ahalik eta gehienetara iristeko saiakera egin zuten. 2006. urterako, telebista Nafarroa Beherea guztian zehar hedatzea lortu zuten. Hurrengo urtean, Interneterako jauzia eman eta ordutik sarean ikus daitezke emankizunak. Gainera, astean ordubetez TVP telebista-katean ere eskaintzen dituzte hainbat eduki eta hori pauso garrantzitsua dela uste du Ximun Carrerek, “izan ere, batez ere adineko jendea ez dago

ohituta ordenagailuak erabiltzera, are gutxiago Interneten nabigatzera, eta horiengana heltzeko aukera eskaintzen digu TVP bidezko emisioak. Momentu honetan zuzeneko emisioak lortzeko probak ere egiten ari gara”.

Proiektua aurrera atera ahal izateko eta dirua lortzeko, ate publiko nahiz pribatuak jo dituzte behin baino gehiagotan. Diru-laguntzak handik eta hemendik jaso arren, urte bukaerako kontuak ez dira baiko-rrerak. “Urtero 25.000 euro inguru faltan izaten ditugu, baina lanean dihardugu aterabide berriak aurkitzeko”, dio Carrerek. Jendearen parte-hartzea duten bitartean, gogorik ez zaie falta etorkizunari aurre egiteko.



Grabaketa bat prestatzen harrapatu genituen Kanaldudekoak. Miel Zeleztino da kable berdeekin ageri dena.

tzak parte hartzeko duen gogo eta asmoaren esku geratzen da. Baten batzuek gaiak proposatuko dituzte, beste askok grabaketa nola egin ikasteko emankizunetara gertutuko dira eta hainbatek bere etxeko atea zabalduko dizkio Kanalduderi, norberaren bizi-penak partekatzeko.

Adibidea jartzearren, Ximun Carrerek hunkituta hitz egin digu Larrainen bizitakoaz: “Oso esperientzia positiboa izan genuen, Tokika saioa grabatzera gerturatu ginenean; Monzonen pastoralaren grabaketa eta hainbat erreportajeren gidaritza herri-tarrek beraiek hartu zuten euren gain. Gure kolaboratzaileen sare finkoa hamabost lagunekoa bada ere, gisa honetako lanketek aukera ematen dio nahi duen orori ekimenaren parte sentitzeko eta proiektua hurbiletik ezagutzeko”.

Xantxo Ernaga ere kolaboratzaile hasi zen Kanalduden, eta kirol emankizunen buru da egun. Frontoiko kamerak prest daudela ziurtatu bitartean solastatu da gurekin eta hizketaldi laburrean azpimarratu

“Jendeak gaiak proposatuz deitzen digunean, guk ezetz erantzun ohi diogu, guk ez dugula egingo, beraiek egingo dutela, baina horretarako behar duten laguntza eta material guztia eskainiko diegula”

XANTXO ERNAGA, KANALDUDE

nahi izan du ikus-entzuleek egindako telebista dela beraia: “Jendeak gaiak proposatuz deitzen digunean, guk ezetz erantzun ohi diogu, guk ez dugula egingo, beraiek

egingo dutela esaten diegu, baina horretarako behar duten laguntza eta material guztia eskainiko diegula”. Ikus-entzulea kontsumitzaile soil izateari utzi eta egile eta sortzaile bihurtzea da telebistaren asmoa.

Hori guztia, euskaraz, nahiz eta, Carrerek gaineratu duenez, euskal hiztunak ez direnak ere erakarri nahiko lituzke Kanaldudek, frantsesak euskarara gerturatzeko bidea izan baitaiteke hau. Azken finean, Iparraldeko tradizioaren, kirolaren, kulturen, egunerokoaren, ekonomiaren, jendar-tearen... errealitatearen berri izan nahi duenarentzat, telebista eta webgune aproposa da Kanaldude. ■

argia.com Erreportajearen bideoa eta aipatutako emankizunetara loturak webgunean.



zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Informazio eguneratua
eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

Izan zaitez
berrialaguna

berria^{info}

Izen-abizenak:

Helbidea:

PK:

Herria:

Kontu zenbakia:

Tel.:

NA:

Posta elektronikoa:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetzeko, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEaren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain

Honako ekarpen hau egin nahi dut:
Adierazi X batez zure aukera

☐ Urtean 100 €

Aldi batean ☐

Lau zatitan ☐

☐ Urtean 200 €

Aldi batean ☐

Lau zatitan ☐

☐ Urtean beste kopuru bat: €

Aldi batean ☐

Lau zatitan ☐

100 eurotik beherako kopuruetan
ordainketa aldi batean egingo da

☐ Hilean 10 €

berrialaguna izan nahi baduzu,
bete datuak eta helarazi:

- www.berria.info/berrialaguna
- **Postaz:** BERRIA. Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** laguna@berria.info
- **Telefonoz:** 943-30 43 45



ERDERAREN Legeak Suetenik Ez

Gaztelania
Nafarroako
Hizkuntza da;

Vascuencea
hizkuntza,
KOO(N)FI(dent)ziala
da, firrinda batean
eta ordutegiaren
arabera... edo ez.

TTAKUN (H)ERRENKA

Euskal zinema eta eraikuntza nazionala

N

ik ere ez dut *Gartxot* ikusteko aukerarik izan, José Luis. Presatu nintzenerako zinema aretoetatik kanpo zegoen, lehenasuna eman nien David Cronenberg, Roman Polanski eta Lars von Trier-en azkeneko filmei.


Azken boladan badirudi halako loraldi bat bizi duela euskaraz egindako zinemagintzak —tira, film-luzegintzak—. Donostiako Zinemaldian ikusi ahal izan genituen ale zenbait. Aski aipatuak izan ziren *Bertsolari*, *Urte berri on, amona!* eta *Bi anai*. Tamalez ezin izan nuen Telmo Esnalena ikusi; tamalez diot, zeren ikusi dutenek esan didatenaren arabera, gustatuko zaidalako susmoa baitut. Euskal zinemagintzari buruzko nire kezka *Bertsolari* ikusi ostean berpiztu zitzaidan.

Ez zitzaidan Asier Altunaren dokumentala gustatu —ez da orain zergatia azaltzeko tenorea, beste batean akaso— eta ene iritzia txiokatu nuen Twitterren, aste hartan ikusitako gainontzeko filmekin egin bezala. Luze gabe iritsi zitzaizkidan nire iritziagatik minduak sentitu zirenen erdeinu, mespretxu eta abarrekoak. Agidanez, *Bertsolari* gustatu ez izana bertsolaritzaren kontrako erasotzat jo zuten zenbaitek, eta are aberriaren kontrakotzat ere. Absurdua da lotura hori. *Schindler's List* filma ez gustatzeak —niri ez zait gustatzen; are, higuigarri zaizkit hainbat eszena— nazien aldeko bihurtuko banindu bezala. Batzuentzat, ordea, zinemagintza —eta, bide batez, baita bertsolaritza ere— beste zenbait helburu nazionalerako bide den neurrian baino ez da muntazkoa. Eta niretzat hori akabua da, autodefentsa txatxu eta eskasa, ez soilik euskal zinemarentzat baizik eta edozein arte molderentzat. Arteak, taxuzkoa bada, ez da inongo komunitatearen barneko loturak indartzeko, ez inongo gizartean halako konunio bat osatzeko. Antropologikoki

MARC CAMPÁ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padrón

edo soziologikoki interesgarriak izan daitezke halako fenomenoak, baina ez artistikoki. Eta gure herriaren arazoetako bat horixe da hain zuzen, bere egoera kulunkaria dela eta, soziologiak eta antropologiak artea jaten dutela anitzetan. Herribatasunak disidentzia itozten duela. Eta artea, zerbait

bada, disidentzia forma bat da.

Zinemaldia bitartean Josu Martinez zinema zuzendariak artikulu bat argitaratu zuen aldizkari honetan bertan. Gai interesgarri askoak mahaigaineratzeko dohaina izan zuen Martinezek, baina sakoneko ideiarekin ez nator bat: “Izan ere, Euskal Herriak bizirau-teko borrokan duen gaitzik arriskutsuenetako bat alzheimerra da eta horri aurre egiteko moduen artean, zinema memoria kolektiboaren adierazpide oso baliagarria da (...) herri batek bere burua pantailan ikusten duenean —ez ahaztu filmak normalki taldean ikusten direla, isilik eta iluntasunean—, herria “sortzen” ari da; zeluloideak “ispilu efektua” eragiten duenean ikusleengan, de facto, herri bat dago hor; bere esperientzia, emozio eta kode konpartituekin”.

Baiki, “ispilu efektua” hori ikusi nuen *Bertsolari* ikusi bitartean, baina ez dut uste horrek filma on bihurtzen duenik. Bidenabar, ez dakit balizko ispilu efektua eragiten duten “euskal gaiak” ez ote diren sobera ustiatu euskal luzegintzan.

Nire iritzian, euskal zinemak aurrera egingo badu, beharrian nazional horietatik kanpo egingo du. Bertute horixe ikusi nion *Bi anai* filmari esaterako, bere tasun, keria eta inperfekzio guztiekin, apustu artistiko muturreko eta indartsua delako. Arteak gehiago du zerikusia urraketaekin, distortsioekin, aurreritziak kolokan ipintzearekin, herri baten kohe-sioa indartzearekin baino. ■



Batzuentzat, zinemagintza beste zenbait helburu nazionalerako bide den neurrian baino ez da muntazkoa.

Eta niretzat hori akabua da, autodefentsa txatxu eta eskasa, ez soilik euskal zinemarentzat baizik eta edozein arte molderentzat

Felipe Zubia Olaskoaga

MEDIKUA

Ziurrak al dira ospitaleak?

I nor izutzeko asmorik gabe, ezetz erantzun dezakegu. Azken estatistiketik diotenez, ospitaleetan sartzen diren gaixoen %9k jasaten du akatsen bat, eta %3k ondorio larriak dituen akats bat. Horren arrazoia garbia da: geroz eta gaixo konplikatuagoak artatzen ditugu ospitaleetan, geroz eta baliabide gehiago eta erasokorragoekin, sendatze portzentaia handiagoa lortuz. Baina horrekin, akatsak ere biderkatu egiten dira. Hau da, gaixoak sendatzeko tresna eta bide gehiago ditugu, baina arazoak eragiteko ere bai.

Kultura berri bat ere ekarri du horretaz ohartzeak: ziurtasunarena. Bestelako jardueretan bezala, segurtasunerako neurriak hartzen hasiak gara osasun zentroetan. Lehenik eta behin, akatsak neuritzea, beren joera jakin eta hartutako neurrien erabilgarritasuna eza gutzeko. Ondoren, akats konkretu bat asko errepikatzen bada, beraien aurkako neurriak antolatzea. Helburua ez da errudunak bilatzea, sistema eraldatu eta akatsak ekiditea baizik. Adibiderako, oso izen antzekoak dituzten botiken aurkezpen erabat ezberdinak egitea. Adrenalina eta atropina botikek soinu beretsua dute, eta ez



Azken estatistiketik diotenez,
ospitaleetan sartzen diren gaixoen
%9k jasaten du akatsen bat,
eta %3k ondorio
larriak dituen
akats bat



nahasteko, beren anpuluak kolore ezberdinekoak egin dira.

Aipamen berezia merezi dute ospitaleetan harturiko infekzioek, infekzio nosokomial izenaz ezagutzen ditugunak. Garai batean ekidin ezin zitezkeen gertaera izatetik, ezabatu ezin diren arren, asko murriztu litezkeen gertaera izatera igaro dira, eta akatsen barruan sartu. Hau da,

ospitale on batek –medikuntza unitate on batek– infekzio gutxi izan behar du bere jardunean. Lanaren antolakuntza aldatu dugu, detaile txiki asko konpontzeko: bena bideak garbitzeko modua, arnagailuen tutuen aldaketa, eskuak garbitzeko produktu eraginkoragoak... Horrekin, geroz eta infekzio gutxiago izaten dute gure gaixoek: gernuko infekzioak, kateterrek eragindako infekzioak, arnas-infekzioak...

Ondorioz, gure ospitaleak ez direla ziurrak esan genezake, baina geroz eta ziurragoak bai.

Zer gertatzen den neurtzen ari gara, ikusi nahi ez duena delako itsurik handiena. Hau da, neurriak hartzen ari gara, osasunaren aldeko denak kalterik eragin ez dezan. ■



TXANDAN

Andoni Mujika



Debagoienak marko bat diseinatu du herrigintza praktikatzeko: *Bagara* deitu diogu. Eskualde honek dakar –berriz ere– gizarte prozesuak antolatzeko berrikuntza. Inguru geografiko eta humano hau aberatsa da gizarte eta ekonomia ekimenak ezberdin planteatzeko. Historikoki jarduera oso ezberdinak kudeatu dituzte zuzenean protagonistek, eta batez ere, egin egin dute. Hori da eskualdearen egiazko diferentziala eta bere prestigioaren oinarri sendoena. *Bagara*rekin esperientzia bat jarri nahi da martxan metabolizatu-tako printzipio ideologiko jakin batzuk berrindartze-

Bagara!

ko eta gaurkotzeko. Iparra marraztu da norabide bat izango duten proiektuak gauzatzeko. Gorputzeko hiru atal gihartuko dira sinkronikoki: eskuak, burua eta bihotza. Dagoeneko, gizarte esperimentaziorako mikroklima honetan, *Bagara*ren bitartez, zenbait sektoreri heldu zaio diagnostikoak egin eta proiektuak abiarazteko. *Bagara*ren logika nagusia ulertzea ez da zaila: eskualdearen garapena autoeraketa komunitarioaren bidez egitea. Galdera zahar eta berriei egitasmo gauzagarriekin erantzun nahi zaie, Euskal Herri osorako laborategi izateko prest. ■



Iñaki Odriozola

IRAKASLEA

Plangintza da giltza

F

ilosofiako ikasketak egiten ari nintzela konturatu nintzen zein inportantea zen, edozein arlo aztertze-ko, egoerak arrazionalizatzea.

Gizakiak, mundua menperatu eta bere onerako ustiatzeko, behar-beharrezkoa izan zuen, jakintza mitikoa utziaz, ikuspuntu berri hau erabiltzea: egoerak barnean nola-koak diren aztertu, harreman eta egiturak azalarazi, eta funtzioak eta helburuak argitu.

Euklidesen geometria izan omen zen arrazionalki antolatutako lehen gaia, orain 2.300 urte. Halere, XVI. mendetik aurrera, zientzia gehienak eratu zirenean, izugarritzko garapena izan zuten, eta XX. mendeko azken urteetan, gizarte aurreratuenetan, denok sinistu izan dugu, eraginkortasunaren izenean, edozein eremu plangintzan eta metodologia zehatzetan oinarritu behar dela.

Gu ere, azkenaldian, halako uholde plangintzazaleak irentsi gaitu, bai enpresa munduan, bai instituzioetan, bai gizartean. Eta hurbiletik ikusi izan ditut euskararen normalakuntza planak, lantegi eta ikas-tertxetako kalitate planak, plangintza familiarak, kultura, elkarbizitza sustatzekoak, etorkinak hartzeko planak. Hasi norbanakotik eta, mailaz maila, Nazio Batuen Erakunderaino, plan estrategikoak, legislatura planak,



Kapitalismoak garatu duen

merkatu-ekonomiatzar hau

plangintzarik gabeko

eremua da. Produksioak

ez du zerikusirik

gizartearen beharrekin,

banaketak, are gutxiago



garapen planak, edo urteko edo biurteko planak egiten ari gara.

Baina bada arlo bat, non plangintzaren beharra erabat gaizki ikusia dagoen. Ekonomia da. Kapitalismoak garatu duen merkatu-ekonomiatzar hau plangintzarik gabeko eremua da. Produksioak ez du zerikusirik gizartearen beharrekin, banaketak, are gutxiago; finantza mundua diru hutsalez gora eta behera dabil, eta aberastasuna pilatu daiteke, neurri gabe, ahal izanez gero.

Baina horrek beste aldea dakar: hiritar behartsu eta justukoen talde izugarria, kontsumoan eta ordu extretan harrapatutako langile talde zabala, langabezia kronikoa, enpresari eta konstruktoreetan oinarritutako gizarte desarrollista, espekulatzailen joko zikinak, eta lantzean behin, sistemaren geldiduna —krisia— eta berrantolaketa.


Kapitalismoa, berriz ere, berreraiki nahian ari dira, batzuen zorrak denon artean ordainduaz, itxuraldatu eta hurrengo krisira arte iraun dezan. Zergatik ez ekonomia planifikatu, beste

arlo guztiak bezala? Produksioa, banaketa eta kontsumoa hiritarren beharren arabera antolatzea da arrazionalena. Eta, nirezat, gehiengoari komeni zaiguna. Baina, inork ez du hau aipatu ere egiten. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



ofizioen artean, sastrearena da azken urteotan nabarmendutako bat. Gogoan dut trajaek neurritan egiten zeneko garaia, estreinatutako aurretik hiru bat aldiz probatzera sastrearengana joan behar genueneko.

Desagertzen joan dira, sukaldariak sortzen diren habaila berean. Valentzian gelditzen da baten bat, oraindik ere bertako politikarien neurritan egiteko gauza dena. Berdin dio konkorra edo bizkar okerra izan, ofizialak propio neurritan egingo dio estandarra bailitza. Hori du ofizio horrek berezko abantaila, desgokiena ere publikoki egokia agertzeko arte

Desagertu

hori, okerrera ere itxuraz zuzen agertu dadin. Eta garesti ordaindu beharrekoa paraje horietan doanekoa da, erregaliaren forma hartzen duena. Politikari hauek gastu handiak dituzte azpiegitura pertsonaletan, itxura ondasuna duen ofizio horretan. Eta sastre ofizial horrentzat ez da txikia harrotasuna, bere obra hedabideetan hain gorputz egokietan ikustean. Erregalia dirudiena, inbertsioa du. Ez dirudi zuzena tribunaletara eramatea holako eskuzabalak diren pertsonak, tranpaz eta jukutiaz josita dagoen garaian eredugarriak direnak. *Prêt-à-porter* delakoa nagusi. ■



ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Aurrerakina

Egun batean, *durango* batean, argitaratuko dut idatzi ez ditudan liburuen katalogoa, bai izenburu hutsez, bai argumentu eta eskema landuagoez osatua dagoena, edo egonen dena, buruan ditudanak paperean jartzen ditudanean. Bilketa lana da gehien gibelarazten nauena. Idatzi ez ditudan eleberri anitzez ez naizelako oroitzen. Baina tarteka hitz batek oroimenaren sotoetatik ateratzen ditu.

Orain bi aste *Deabruaren abokatua* ataleko elkarrizketa batek hala egin zuen. Eleberri historiko—gutxien landu ez dudak generoabaten egitasmoa berritu zidan. Hona ekarriko dut, berriz idatzi gabe utzi edo, okerrago, beste norbaitek egin dezan baino lehen:

P. M. Etxenikeren lan taldean denbora makina asmatu eta B. Urgellen eraginez bi euskalari protoeuskara ikertzerak bidaltzen erabaki dute. Gure patu amateurista dela medio, haietako bat J. M. Elexpuru bat da (nobelaren beste izen batekin agertuko dena), eta bestea, unibertsitate arloko Joseba Anabitarte bat (I. Zalduaren *Euskaldun guztion aberriatik hartua*).

Iraganerako bidaian abiatu baino lehen, berrogeialdian jartzen dituzte, ez dezaten oraingo eritasunik ez bakteriorik hara eramane. Hor nabarmenduko da ikerlarien ezin moldatua. Elexpuruk, esaterako, kultura klasikoaz ezer ikasteari uko egingen dio, duen euskararen ezagutza zabalarekin nahikoa izanzen zaiolakoan. Anabitarte pasota da, baina beste modu batera, garaiko latina freskatzeari ekiten dio zoroki, behin iraganera joanda ez duelako Euskal Herriaz ezer jakin nahi eta, agindutakoaren kontra, K. a. I. mendera iritsi bezain laster, Antzinateko hiri nagusi guztietara, bereziki Erromara, joateko asmoa duelako, bere iraganarekin —bere etorkizun urrunarekin— guztiz mozteko.

Dudarik ez, Felixpurus birbataiatuari gaizki doakio, berak irudikatu bezalako Eus-



JOSU SANTESTEBAN

kal Herria ez baita existitzen; horregatik, morroi dabilen *fundus* erromatar batean, Araba aldean, Veleian, hain zuzen, zeramika zati batzuetan idatzi batzuk burutzen ditu; bere bizitza, bere misioa eta Euskal Herria alferrik izan ez direla frogatuko duten lekukoak (agian, horregatik, orainera itzulita, hain sutsuki defenditzen du ostraken benetakotasuna, berak idatzi zituelako, autentiko!).

Anabitarterekin (abizenagatik greziartzat hartzen dutena: Anabitar-tis) zer egin ez dut hain argi ikusten. Erroman karrera egin zezakeen, Liviaren arrimuan.

Badaude datu historiko batzuk etorkizuneko bidaiari baten presentzia zalantzarik gabe egiaztatzen dutenak. K. a. 19. urteko uztailean, Atenasen, Zarmarus edo —Estrabonen bertsioan— Zarmantoxegas izen susmagarriki euskaldun aireko batek, Augusto eta Liviaren aurrean, bere burua sutara bota eta desagertu zen. Seguruenik denbora makinak eragindako distira izan zen bikoteak ikusitakoa.

Dion historiagileak ere kontatzen du Tiberiok Rodasen eman zituen zazpi urteetan konfidente izandako Thrasyllus igarleak itsasoan Erromatik ontzi bat ikusi eta Tiberiori igarri ziola, hitzez hitz, Augusto eta Liviarengandik jasoko zuen barkamenezko gutunak zioena. Ziurrenik, etorkizunetik *Ni Klaudio* berarekin zeraman denbora bidaiari bat zelako, Tiberio galtzailearen ondoan jartzean ere ongi asmatu zuena. Zarmantoxegas eta Thrasyllus pertsona bera lirateke (Anabitar-tis), nortasun baten itxurapean ikusitakoek beste nortasunarekin ikus ez dezaten biziki kezkatuta, horrek milaka endredo eraginda.


Berriz Erroman, ezuste! Felixpurus Klaudio gaztearen ondoan dago. Etruskoa, hots, euskara irakasten ari zaio. Trilogiako lehena fini. ■



Felixpurus birbataiatuari gaizki doakio, berak irudikatu bezalako

Euskal Herria ez baita existitzen; horregatik, morroi dabilen *fundus* erromatar batean, Araba aldean, Veleian, hain zuzen, zeramika zati batzuetan idatzi batzuk

burutzen ditu




irudia:

Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Julio Soto

Olentzerori jarriak



GALDER IZAGIRRE/XDZ

I

Kaixo Olentzero, Etiopian
guztia da hauts, bero, ke...
ni ongi nago, baina anaiak
badauka zerbait, zer ote?
Azken aldian irribarreek
ihes egiten diote,
sabela hazi-hazita dauka,
azal hoztu, eztul kolpe...
Sendagairen bat baldin bazenu
pozik emango nioke.

II

Kaixo Olentzero, Rio Janeiron
fabela bueltan beti gu,
hamalau gazte gara, futbola
odolean dakarkigu,
guk baino behar gehiago duten
haurrak daude, badakigu,
baina baloi bat sobran bazenu
mesede egingo digu,
duela hiru urte ekarri
zeniguna hautsi zaigu.

III

Kaixo Olentzero, zer moduz zaude?
Tori bi muxu, bi patxo,
Bengasin bizi naiz, azkeneko
leherketa handia atzo,
hamahiru urte dauzkat, badakit,
gauzak eskatzeko zahartxo
baina ez bada zuretzat kezka
ez buruhauste lartxo
jakin nahi nuke non dauden
nire aitatxo eta amatxo.

IV

Kaixo Olentzero, Indian bizi naiz
hamaika urteko lora,
egun guztia pasa behar dut
jostorratza, behera, gora.
Hari finena zapatilentzat
lodiagoz, alkandora.
(Gure arteko sekretua da:
ez dut egiten gustora)
Bakar-bakarrik eskatzen dizut
jolaserako denbora.

V

Kaixo Olentzero, Euskal Herritik
aurten eskari erreza:
nahi dut Messiren trajea eta
espinilletan babesa,
eta baloi bat (hau ez galtzeko
egiten dizut promesa),
Bob esponja bat, eta wifia
eduki ahal baneza.
A, eta bueno, gero beste bat
baina hori ja sorpresa.

VI

Abenduaren hogeita lau
iluntze magiko, bero,
kaleak argi gorritz, laranjaz,
dotoreak dira gero...
Zoriontsu den familia bat,
segiko ote du gero?
Guztia oso polita baina,
eguberriro, urtero,
gutxien behar den etxeetatik
pasatzen da Olentzero.



DOINUA: Lurraren pean sar nindaiteke



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Antzerkia

Inorako bidaia arriskuen itsasoan

Inorako bidaia antzezlanak aurkeztu berri du Kukubiltxo taldeak, Aristides Vargas idazle eta antzerkilariarekin osatu duen bigarren elkarlana. 1950ean diktaduratik ihesi bederatzi lagunek belaontzi batean egindako bidaia izan dute inspirazio iturri, oroimen historikoaren gaian murgiltzeko xedez. Pertsonaiak bezala, aktoreek ere erronkaz betetako bidaia abiatu dute sortze prozesuan.

OIER GUILLAN

Argazkiak: Kukubiltxo



AINHOA ALBERDI, Maria Alonso, Josu Camara, Marifeli Etxeandia eta Iurgi Etxebarria aktoreek jokatzen dituzte *Inorako bidaia* antzezlaneko rolak, Gotzon Barandiaranek moldatu du Aristides Vargasek bideratutako testua. Vargasekin batera antzezlanak sortzeko prozesua bera izan da taldekideek aitortu digutenez, inorako bidaiarik handiena, hitzak eta haiek esateko moldeak elkar eraginez topatu dituztelako bidean.

Inorako bidaia kontatzen duen istorioaren oinarrian gertaera erreala bat dago: 1950ean diktaduraren presiotik ihes egin zuten bederatzi lagunak itsasoz Montserrat izeneko belaontzi txikian, Santurtzin itsasoan desa-


gertutako pertsonen omenez egindako itsas prozesioa baliatuz. Abentura hura paperean jasota dago hura bizitako batzuen edo haien ondorengoen ahotik, testu haietatik abiatu ziren istorioa sakonean ezagutzeko. Josu Camarak azaldu digunez, “duela hiru urte deskubritu genuen txalupako baten ilobak idatzitako *Vientos de libertad* testimonio nobelatu, oso polita iruditu zitzaigun bederatzi pertsona irudikatzea itsasoaren erdian, noraezean, erreferentziarik gabe. Vargasek dioen bezala istorio hau norabide zehatzik gabe baina krudeltasun txikiagoko mundua topatzeko itxaropenarekin abiatu den herriaren metafora da”.



Kukubiltxoren bigarren bidaia

Kukubiltxo txotxongiloei, maskarei eta publikorik gazteenari lotuta irudikatzen du askok oraindik, baina azken bi antzezlanek beste estetika eta ibilbide baten berri ematen dute. Josu Camarak azaldu digunez taldeak 30 urte bete zituenean bi bide posible ikusi zituzten: atzera begira egindakoa ospatzea, edo aurrera begira haien ahalak berrasmatzeko erronka hartzea, taldean astindu bat eraginez. Bigarren bidea aukeratu zuten. “Prozesu horren lehenengo fasea birziklatzea zen, ikastea eta sakontzea erabiltzen genituen teknikan. Horretarako irakasle ezberdinekin topo egin genuen”. Haien artean zen Aristides Vargas, Argentinatik Ekuadorrera erbesteratutako antzerkilaria. Ordurako Vargas egona zen hainbat alditan Euskal Herrian Malayerba bere taldearekin, besteak beste oihartzun handia izandako *La razón blindada* lana taularatzen. Camarak oroitzen duenez “bere lan egiteko metodoa ezagutu genuen, eta ikuskitzen berri baten sormen prozesuan gurekin aritzeko proposamena egin genion”. Vargasek hasieran ezuste itzela hartu omen zuen, baina azkenean *Haritzaren azalera zehatza* izango zena- ren zuzendaritza hartu zuen bere gain. Urrats hori nolabaiteko biluzte bat izan zen Kukubiltxokoentzat. “Norbera agerian egotea oholtzan maskararik gabe, norberaren sentimenduekin, txotxongilo manipulatzailerak izateaz gain taldean bazeudelako eszena gainean pertsonaia bat mantentzeko gauza ziren aktoreak”. Vargasek Quiton duenez habia, sormen prozesuak zailtasunez beteak izan dira, baina ez dute etorkizunean Malayerbarekin koprodukzioak egiteko aukera baztertzeko.

'Inorako bidaia'-k kontatzen duen istorioaren oinarrian gertaera erreal bat dago: 1950ean diktaduraren presiotik ihes egin zuten bederatzi lagunek itsasoz Montserrat izeneko belaontzi txikian, Santurtzin itsasoan desagertutako pertsonen omenez egindako itsas prozesioa baliatuz



Camarak aitortu duenez Vargasekin egindako bi lanen artean bada ezberdintasunik hala ere: “*Haritzaren azalera zehatza* Vargasek argi ikusi zuen behin eta berriz ari ginela gure identitateaz gogoeta egiten, hari horretatik sortu zen lana. Oraingo honetan oso gai konkretua izan da abiapuntua. Guk hasieratik genuen oroimen kolektiboaz hitz egiteko gogoia eta beharra, eta 1950 gertatutako bidaia horretarako bidea ematen zigun”. Hori bideratu ahal izateko Vargasek urtebetez ariketak eta testu proposamenak bidali dizkie, haiei emandako erantzunak igorri Kukubiltxokoek eta prozesuaren azken fasean hari guztiak Euskal Herrian elkartu dituzte. Vargasek berak aitortu digunez zalan-tza ugari eduki zuen “hasiera batean istorioa ez zitzaidan erakargarria egin, ez dudalako gogoko errealitatea gertatu den bezala kontatzea. Tarteko planoak ditut gogoko, fikzio erai-kuntza errealitatea baino gehiago. Artista bezala ez nekien zer gehitu niezaiokeen esperientzia hura islatzen zuten idatziei”. Orduan proposatu zien Kukubiltxokoei irakurketa garaikide batera eramatea dena. “Hitz egin zezatela antolatua dagoen

sistema batean sortzen den aldatzeko beharraz, ezarritakoa apurtzeaz, bizimodu ustez seguru bat urratzeaz, segurtasun ezara doan bidaiaz eta ezustearekin jolastearen garrantziaz”. Abentura ekintza kasik politikoa bilakatzen da zentzu batean. “Etxetik okindegira doan eguneroko bidaia bilaka daiteke bidaia fantastikoa, norberaren jarreraren arabera. Bidaia alderik garrantzitsuena ez da iris-tea, norabait joatea baizik”.

Camarak dioenez Vargasekin lan egitea aukeratzean oso kontuan izan dute bere antzezlanen izaera konprometitua. “Gure



nortasuna batzuetan oso berezia dela sumatzen dugu, beste batzuetan ikusten dugu hemen gertatzen zaiguna munduko edozein lekutan gerta daitekeela. Guretzat interesgarria izan da bi kasuetan gutaz hitz egitea tartean kanpoko begirada bat jarrita". Hainbat hilabetez Vargasek idatziz harilkatu du aktoreek pasatutako materiala, kontakizunak, fabulak. "Haien bidaia propioen haritik egitea eskatu nien, hori interesatzen baitzitzaidan: bidaiatzeko beharraz aritzea era garaikidean". Utopiaren kontzeptuarekin laburbildu liteke funtsean ahalegina. Utopia izeneko ostatuan elkartzen dira, hain zuzen ere, pertsonaiak. Vargasen esanetan "espazio utopiko hori izan daiteke infernuzkoa baina baita ere askatzaila. Badira utopia beldurgarriak, erlijiosoak adibidez, baina beste batzuk mugiarazleak, adibidez gizakiak hobeagoak izan gaitezkeela diotenak".

Hizkuntzari dagokionez aktoreek haien arteko jarduna euskaraz egin dute, erdaraz Vargasi zegokion guztian. Gotzon Barandiaranek izan du urrats bakoitzean ekarpenak euskaraz moldatzeko ardura. Vargasek aitortu duenez hizkuntzarekin jolasteak prozesuari eragin dio. "Nire gaztelania Latinoamerikakoa da, beste errealitate batzuek ukitua dago. Era berean euskaratik berrasmatuak izan dira nire testuak prozesu honetan. Nik aktoreei esaten nien hitzek ez zutela galdu behar jolasaren zentzua, orduan sentituko baita publikoa identifikatua. Modu horretan bilakatzen dira hizkuntzak propioak eta identitarioak". Vargasek dioenez oraingo honetan euskararen inguruan galdera asko sortu zaio: "Euskara zirrargarria iruditzen zait. Hizkuntzak zaindu egin behar dira gal ez daitezen, hizkuntzen atzean gizakiak daude eta hizkuntza desagertzen bada gizaki horiek dira desagertzen direnak".

"Ez zait interesatzen famatua bilakatzea, ez dirua egitea. Gizakiei mintzo zaien teatroa interesatzen zait, nolabait parte hartzen duena gizartearen berregituratze etiko batean"

ARISTIDES VARGAS

Jokoaren hiru mailak

Aktore taldearentzat erroka handia izan da Vargasek proposatutako bidea, funtsean hiru aktore-mailatan oinarritua: norberaren pertsonaia, itsasontzian diren pertsonen azalean sartzeko egiten duten ahalegina eta aktorearen beraren sentimendua. Camarak dioenez aktuzio-eza izendatu izan dute Vargasek eta bere bikote eta lankide Charo Francesek euren metodoa. "Ez interpretatu, ez imitatu. Norberak sentimendu bat aurkitu behar du eta hortik abiatu. Batzuetan ez du pertsonaiak hitz egiten oholztan, baizik eta aktoreak. Ez gara geratzen lotuta".

Aristides Vargasek proiektu bakoitzak eskatzen duen prozesua bilatzen du, formula itxietan galdu gabe. "Oro har gustukoak ditut esperientzia teatralak, era konbentzional batean muntatu daitezkeen obrak baino gehiago. Gogoko dut era experimentalean lan egitea, gaiak eta lan egiteko moduak esentzia bera izan dezaten". Elkarrizketa egin eta gutxira Parisera abiatu da *La razón blindada* egitera, baina han edo Santurtzin egiteak garrantzia bera duela dio. "Ez zait interesatzen famatua bilakatzea, ez dirua egitea. Gizakiei mintzo zaien teatroa interesatzen zait, nolabait parte hartzen duena gizartearen berregituratze etiko batean. Ez zait interesatzen teatroa ezer ez esateko, nire ustez teatroak bere hastapenean bezala jendeak egunero eztabaidatzen dituen gaien artean bilatu behar du lekua. Momentu hau oso konplexua da gizadiarentzat baina era berean zirrargarria, bizitza ongizate estatuan lasai egotea dela pentsatzeari utzi diogulako".

Oraingoz abenduaren 23an Mungian aurkituko dugu *Inorako bidaia*. ■



Dantza

La Fundición: Kutxa beltzak 25 urte bete ditu

Aulki beltzaren berotasunak hartu nau. Itzali dira argiak. Areto iluneko isiltasun pisutsuak ikuskizuna hastear dagoela iradokitzen du. Ez dago banaketarik aulkien espazioaren (ez-lekua) eta antzezpen espazioaren artean, dena beltz, bien artean eskailerarik ez da, ez eta altuera desberdintasunik. Espazio ilun eta isil horretan galtzeaz nagoenean, argi urdin bat piztu da eszenan. Horren menpe gorpuztu den antzezleak, begietara begiratu nau kontakizuna hasi duenean.

MYRIAM GARZIA

SORKUNTZA GARAİKIDEA, baina batez ere antzerki eta dantza garaikidea –bertakoa eta nazioarte mailakoa–, sorreratik bultzatu duen Bilboko La Fundición aretoak 25 urte bete ditu. Luque Tagua sortzaile eta programazio arduradunak hartu gaitu Deustuko (Bilbo) aretoan. Udazkeneko goiz argitsua da, eta galdategian lanean ari dira, sorkuntza garaikidearen makineria martxan jarrita. 80 eserleku soilik dituen antzokian sartzeko gonbitea egin dit Luquek, aulkiak jasota daude eta aretoa kutxa beltz biluzia iruditzen zait. “Oso desberdin ematen du, ezta?” dio.

Azken 25 urteotan, 400dik gora antzerki eta dantza talde igaro dira aretotik. “1986an sortu ginen, asmo bakarrarekin: arte garaikideen gune dinamiko eta fusio-toki izateko nahia” azaldu du aretoko sortzaileak. Izena, La Fundición (Galdategia), bere sorreran Fundiciones del Norte izandako lantegiaren kokapenagatik etorri zen. Ramon y Cajal kalean zegoen 600 metro koadroko lonja industrial honek bi espazio zituen: entsegurako bi espazio eta arte galeria bat. “Lehen unetik, gure asmoa arte klasikoak, hala nola antzerkia, dantza zein musika, arte plastikoekin nahastea zen eta euren artean kutsakorrak izan zitezela”. Arte garaikidearen diziplinen espazio amankokun hau, “Euskal Herrian, eta Bilbon bereziki jazotzen ari zen une politiko istilutsuen artean sortu zen”. Bi urte ziren Euskalduna Ontziola itxi zutela eta Deustuko zubia toki erabakigarria zen ontziolako langileek egiten zituzten mozketa eta borrokan. “Konbultsio handiko momentuak ziren”. Sortzaile ugariren topagune izango zen aretoa une zail horien erdian baina ez aparte eratu zela adierazi du programatzaileak. “Izan ere, sortzaileok uste genuen tentsio politiko horiek filtratu beharra genuela, ekimen artistikotik, bestelako begiradak eta ikuspuntuak eskainiz. Gure ustetan, bizi-tzen ari ginen tentsio handiko une horiei ekarpena egin behar genion”.

10 urte eman zuten galdategi zahar hartan eta Luquek azaldu duenez, “apurka-apurka arte diziplinen arteko espazio estanko horiek apurtzen eta nahasten hasi ziren. Gainera, gure espazioa horizontala zen, gauza berria zen Bilbon, ez zegoen banaketarik ikusleen



eta eszenatokiaren artean. Horrela hasi ginen kultura ertaineko gunea izaten, ez ziren aurrekontu handiko ekimenak, ezta ere txikiak edota esdeusak ere”. Hastapenetan aretoan aurkezten ziren lanak performatiboak edo kontzeptualak ziren: antzerkia, dantza, poesia, musika elektroakustikoa edota lehenbiziko ikus-entzunezko lanen emanaldiak ikusten hasi ginen Bilbon. 1996an, hiriaren berregite handiaren barruan, eta diru-laguntzarik gabe bultzatutako ekimena Francesc Macia kalera pasa zen, Deustutik alde egin gabe –han dago aretoa gaur egun ere–. “Orduan, jautzia ematea erabaki genuen, arte diziplinen arteko nahasketa hori ahanzi gabe, baina batez ere antzerki eta dantza garaikidearen erakusketarako areto gisa, hala nola, arte diziplina horiek bultzatzeko baliabideen gunea bezala”.

“Hau ez da ohiko erakusketa areto soila”

Egun, La Fundición aretoak bi zatitan banatzen du bere jardura: lehenengoa, erakusketaretoa da, baita hainbat dantza eta antzerki topaketetaren antolatzaile eta bultzatzaile ere; eta bigarrena, baliabideen gunea da, batez ere bertoko hainbat antzerki eta dantza talderentzat. Azken atal horrek erakusten du “La Fundición aretoa ez dela soilik erakusketarako aretoa”. Dantza eta antzerki taldeak sustatzeko garrantzitsua izan da oso beraien jardura, bai Euskal Herrian bai nazioartean.

Euskal Kultura Kontseiluko eta Espainiako Estatuko Arteentzako Kontseiluko aholkulari izateaz gain, bertoko antzerki eta dantza garaikidearen lanen erakusketarako hainbat ekimen bultzatzen dituzte. Ez bakarrik urte osoan La Fundiciónen ematen den programazio iraunkorarekin, baita Dantzaldiarekin ere –Euskalduna jauregia eta Guggenheimen egiten den formatu ertain-handiko dantza jaialdia–; eta Lekuz Leku ekimenarekin –Abandoibarrako zonalde berrituan ekainean egiten diren antzerki eta dantza ekintzak– edo Txotx Ekainean programazio bereziarekin.

Ildo horretatik, euren lehenbiziko lanak aurkezten dituzten gazteek ere lekua dute La Fundición aretoan, Zer(k)anias izeneko ekimenean. Sormenezko Istripuak programa ere bultzatzen du aretoak: esperientzia handiko sortzaileen begiradapean, talde berriei eskaintzen zaie tailerra La Fundiciónen bertan eta azken emaitza erakustea du helburu. “Laborategi edo entsegu lokalaren antzekoa da. Azken urte honetako Huescako Antzerki jaialdian, *La Cocina (Sukaldea)* antzezpenak

–Enriqueta Vega, Pako Revueltas eta Na Gomesen azken lana– Antzerki Berritzaileen saria jaso du eta lana ekimen horren barruan gauzatu zen, Sergi Faustino gidari eta kanpo-begi zutela”.

“Gure lana sortzaileen arteko gertutasuna ahalbidetzea da” jarraitu du Taguak. Beste erakundeekin elkarlanean, baliabideen gunea bezala izugarritzko lana egiten du La Fundiciónnek.

Taldeek entsegu lekua behar badute, somen-egonaldiak zein egonaldi teknikoak egiteko espazio gisa edo bertako antzerki eta dantza taldeei aholkularitza zerbitzua eskainiz. “Hemengo taldeen difusioa lana egiten dugu. Guk badakigu sendoak eta kompetitiboak direla –nahiz eta kontzeptu hori ez datorren bat artearekin–. Atzerrian zeregin bera betetzen dutenekin harremanak ere egiten dira arian-arian. “Aurten, lau herrialderekin egingo ditugu elkartrukeak: Italia, Alemania, Portugal eta Espainia. Bai diru-iturriak sorrarazteko, topaguneak eta konplizitateak bultzatzeko, bai arte garaikideen ideiak munduan barreiatzeko ere, askok oztupoak izaten baitituzte medioetan agertzeko”.

LUQUE TAGUA

25 urte eta gero, honaino helduta, esan daiteke La Fundición aretoa bertako talde askoarentzat “euren lanak erakusteko espazio natural” bilakatu dela. “Hau bezalako areto batean sortzen den begirada ez da beste areto batzuetan ematen, mota honetako programazioa egiteko ohiturarik ez dutelako”. Esaterako, antzezpenen ostan ikusleak basoerdia hartzera gonbidatzeko ohitura dute. “Garrantzitsua iruditzen zaigu, aisialdi tarte horretan publikoak sortzaileekin hitz egiteko aukera baitu. Galderak egin, eta begirada eta zubi berriak sortzeko aukera paregabea da” Taguak dioenez. ■



Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

Liburuak

KRITIKA

European ere argitasuna

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle

HAUXE DUGU Leire Salaberriaren lehen liburua, eta alde horretatik pozgarria da Nafarroatik datorkigun Etxepare lehiaketak bidea ematea euskal letren eta irudien panoraman sortzaile berriak plazaratzeko; literatura lehiaketek, hain zuzen, ibilbideak saritzeaz gain balio behar baitute izen berriak, sortzaile hasi berriak plazararazteko.

“Euria ari duenean”. Hitz horiekin, edo ideia horretatik, abiatzen da kontakizun labur hau. Leire Salaberriak euria ari duenean egiten dituen ekintzak adierazten dizkigu, zer gustatzen zaion, zer egiten duen, nola jokatzeko duen... zergatik duen gogoko euria, alegia. Eta ideia hori oso modu sinplean adierazten zaigu, testu aldetik ideia argiak eta tinkoak esanez: “Gelako lagunekin batera, putzuetan egiten dut arrantzan eskolatik irtetea. Koloretako arrainak harrapatzen ditugu, guk bakarrik ikusten ditugun horietakoak, magikoak”; baina sinpletasan hori testuaz gain irudietan ere ageri zaigu. Collage modukoak, perspektiba faltsuak, sin-



Euria ari duenean.
Testua eta ilustrazioak:
Leire Salaberria.
Pamiela-Kalandraka.
34 orrialde.
13 euro.

bolismo handiz... irudiek haurren mundura, haurren ikuspegietara hurbiltzen gaituzte, Salaberriak idazkera ez ezik ilustrazioa ere haurren tonuarekin bat eginez sortu baitu. Hots, istorioa kontatzen digun bezala neskak horrek berak irudikatzen dituela narrazioarekin datozen irudiak.

Euria ari duenean liburuan eguneroko sinpletasuna ageri zaigu, nola lor dezakegun zoriontasuna, ongi pasatzea, ondo egotea, egoera sinple batean, euria ari duenean paseatuz, txakurrarekin ibiliz, euritakopean egonez, amets gozoak eginez edo arestian ikusi dugun bezala putzuetako arrain imaginarioak arrantzatzen. Narratzaile den neskaxaren ikuspuntu horretan, hala ere, ageri dira euriarekin edo euria ari duenean disfrutatzen ez duenik ere: “Euria ez dute denek gogoko. Arratoiak kexu izaten dira estoldak urez betetzen baitzaizkie. Katuak ez dira urrun ibiltzen egun euritsuetan, nahiz eta ura gustuko ez izan (...). Nire ahizpa zaharrena haserretu egiten da ilea erratzaren moduan geratzen zaiolako”, baina narratzaileak argi eta garbi du: “Gustuko dut euria ari duenean, nahiz eta helduei ez atsegin. Dibertigarria da benetan!”.

Album honetan biltzen diren ideiak, erabiltzen den estetika (sinple itxura duena, haurren ikuspuntutik egina), ideien argitasuna eta osaketa (lehen aldiz Etxepare sarietan, eta hau V. saria da, pertsona berak egin ditu irudiak eta testua), eta irakurlearekin lortzen den identifikazioa direla eta, liburu eder baten aurrean gaudela esan daiteke; haurren gozamenerako eta helduon gogoetarako liburu itxuraz sinple baina ongi landua. ■



EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Zabalgune Plaza, 5
48009 Bilbao
☎ 94 423 1500
Faxa: 94 424 3947
eudel@eudel.net

www.eudel.net

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Zai at Devo city.
Klak!son.
Autoekoizpena.
Iraupena: 33'07".
5 euro.

Nortasuna eta berezko giro iluna

EZUSTE ATSEGINA izan da Antzuola eta Urretxu-Zumarragako taldea azalera berriro irtetea eta disko interesgarria kaleratzea. Danbaka musika lehiaketan ezagutu genituen eta orduan erakutsi zuten estilo propioa zutela. Orain, nortasunari eutsiz, are eta giro ilunago eta gogorragoak lantzen dituzte. Baxu jotzailea aldatu eta disko hau beraien kabuz grabatu dute. Kante talde asko ekar ditzakete gogora, baina era berean zaila da inorekin pareka-

tzea. Nabarmena da teklatuak taldean duen pisua eta The Doors-ekin zuten antzekotasuna arinduz joan da; Itoiz ere ez dago urrun, baina pop-rocketik abiatuta psikodelia, rock-and-rolla, post-rocka, progresiboa eta jazz ere lantzen dituzte. Iruditeriaz betetako hitzak euskaraz abesten dituzte nagusiki, baina bada gaztelaniazko eta ingelesezko pasarterik ere.

www.myspace.com/klakson5

Klak!son

«Estilo askotatik edan dugun musikariak gara, eta kanten konposizioa denon artean egiten dugu»

Iraganean zenuten The Doorren kutsu handia arindu da, nahiz eta *Zai at Devo City* kantak talde haren arima duen.

Longu teklistaren talde kuttuna da The Doors eta hori erraz antzeman daiteke teklatua jotzeko duen eran. Gure hastapenetan pisu handia izan zuen Doorsek eta *Zai At Devo City*-ren bukaera Doorsi eginiko omenaldia da.

Pop-rockari freskotasun handia ematen diozue, estilo eta giro asko batuz. Non kokatzen zarete?

Musika estilo askotatik edan duten musikariak gara, eta kanten konposizioa denon artean egiten dugu. Pop-rocka erro bezala hartuta post-rocka edota psikodelia moduko estiloak lantzen saiatzen gara.

Non irudikatzen duzue Devo City?

Kanta oso iluna eta aldi berean irekia da. Hiria pertsona edo gizartearen metafora bezala ikusita degra-



dazio morala eta baloreen eza irudikatzen ditu.

Jon Pinillos baxu jotzaile ohiaren papera oso garrantzitsua izan al da?
Bere ekarpena handia izan da disko honetan. Diskoaren diseinua eta hitzetako asko bereak dira.

Ia disko osoa lokalean grabatu duzue. Lortu duzue buruan zenuten emaitza?

Hasieran genuen helburua bete dugu

ezbairik gabe. Oso gustura eta liberatuta sentitzen gara, nahiz eta beti dagoen aldatuko zenukeen zerbait.

Hitzak oso irekiak dira, eta nolabait Itoizenak ekarri dizkirate gogora. Itoizekin badituzue gauza gehiago komunean, ezta?

Itoitz guretzat talde euskaldun erreferentzialetako bat da. Itoizekin izan ditzakegun parekotasunak dira, beti ere distantziak gordeaz, melodiari garrantzia handia ematea, hitz irekiak eta abstraktuak izatea, abeslariaren ahotsa...

Pop-rockaz eta progresiboaz gain, badira jazz, indie eta post-rock ukitu nabarmenak ere. Ez diozue inolako estilori aterik ixten?

Arri bateriaren ekarpenarekin erritmo mota asko jotzeko gai gara; erritmo asko bai, baina Klak!son estilo propioa jorratuz. ■



Ezpalak

JON TORNER

Pantxoa eta Peio bikotearen behin-behineko agurra



PANTXOA ETA PEIO abeslari bikote lapurtarrak beren ibilbide artistikoa etetea erabaki dute. Ohar batean azaldu dutenez, ez dute “epe edo helburu berezirik zehaztu” taula

gainera itzultzeko. Abenduaren 20an beren azken kontzertua izango dena –behin-behinean behintzat– eskainiko dute Bilboko Euskalduna jauregian, *Baionatik Bilbora* jaialdiaren barruan. 1970eko hamarkadan hasi ziren euskal abertzaletasunari lotutako abestiak kantatzen. Euskal Herri osoan ezagun egin ziren, eta eurek abestutako kanta asko euskal musikan klasiko bihurtu dira. Hauek dira Pantxoa eta Peioren abestirik ezagunenetariko batzuk: *Lepoan hartu ta segi aurrera*, *Itzjarren semea*, *Urtxintxak*, *Azken dantza hau*, *Bai euskarari*, *Batasuna*, *Egunsenti bura* eta *Txikia*.

Txomin Badiola

(Bilbo, 1957) artistak erakusketa paratu du Bilboko Carreras Mugica galerian (Henao kalea, 10), *Una entrada, mil salidas* (Sarrera bakarra,

milaka irteera) izenburupean. Testu eta argazkiak uztartzen dituzten *collage*ak, obra grafikoak eta eskulturak bildu ditu erakusketan. Euskal Herrian, azkenengoz 2007an erakutsi zituen bere artelanak Badiolak, Iruñean. Bilbon, bestalde, 2003az geroztik ez du gaur arte erakusketarik egin. Azken urteotan Jorge Oteizaren lana biltzen duen katalogoa egiten aritu da. 2012ko urtarrilaren 27ra arte zabalik izango den erakusketari dagokionez, artista bilbotarrak esan du “ariketa bat” dela, “obra multzo bat aktibatuko duen forma baten sorkuntza saioa”. Dioenez, “ez da aurkezpen estrategia hutsa”. Aitzitik, “obren beraien garapena du abiapuntutzat”. Obrak zazpi multzotan sailkatu ditu, eta bakoitzaren buru *Anxiety* saileko grabatu bat da.



musika bulego osoa

baga-biga

musikarientzat baliabideak eskura

kaotiko

disturbio

etxe

vendetta

esne beltza

oinkari

antton

xutik

gaizka peñafiel

Historia del rock vasco

baga-biga musika ideiak
 telf. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

Abarrak

MIKEL GARCIA

Irribarre mutua

EZUSTEKOA EMAN DU AURTEN, sariz sari dabil eta dagoeneko eskalada geldiezina hasia du Oscarren bidean. Donostiako Zinemaldian ere, Publikoaren Saria irabazi zuen, gauza ederra lortu baitu *The Artist* filmak: kritikak goraipatzea eta ikusleek maitatzea. 1927an dago kokatua, zinema mutuaren azkenetan, eta ahosdun zeluloidera egokitzen jakin ez duen aktorearen gainbehera du ardatz, sasoi batean izandako ospearean itzaletan. Pelikula arriskatua egin du Hazanaviciusek, zuri-beltzean errodutua eta mutua, baina ahotsa ez da faltan botatzen pelikulan eta ikusleak gozatu egiten du pertsonaien elkarriketa, oihiu eta xuxurla entzunezinez; keinuak eta begiradak gauza dira beren kabuz asko transmititzeko —bi aktore protagonisten lan onari esker, hein batean—.

Zinema mutuaren estiloa eta imintzioak berreskuratatu, era burutsuan birmoldatu, eta istorioa modu originalean kontatu du zuzendariak, umoretsu. Keinu konplizeak tartekatuz, erritmo biziz, musika, argazkia eta argi-ilun jokoak txukun gidatuz, zinema-industriaren barrunbeak arakatu ditu: makineria zinematogra-

The Artist. Zuzendari-gidoilaria: Michel Hazanavicius.
Aktoreak: Jean Dujardin, Bérénice Bejo.
2011, Frantzia. 100 min.



fikoaren baitako botere harremanak jarri ditu mahai gainean, arrakastaren izaera hauskorra, zinemak berak sortutako produktuak gailurrean jartzeko eta handik lokatzetara jausteko duen abilezia, duintasunaren eta urguiluaren arteko muga...

Hiru dimentsioen garaian, zinema egiteko bestelako moldeetan murgildu da Hazanavicius, txarlestona- ren hamarkada irudikatzeko. Bitxia da nola, zinema mutuak jasan zuen gainbehera pantailaratzeko, pelikula mutua egin duen zuzendari frantziarrak, zinema eredu horrek ez duela zertan zaharkitua egon frogatzeko. Alderantziz, freskoa da *The Artist* en ekarpena, zuri-beltzean izan arren koloretsua, argia, xarma eta magia bereziarekin. Aretotik ateratzean irribarre zintzilik uzten dizun horietakoa.



EGURREZKO TAULA
50€

EGUTEGIA
8,50€

BURNIZKO EUSKARRIA
5€

argia

Salgai dagoeneko!

2012ko egutegia

- Eduki historikoak
- Landareei buruzko bitxikeriak
- Txisteak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

ESKAERAK


☎ 943 37 15 45

denda@argia.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Dudarik gabe. Bola-jokoan, zutik jartzen den pieza bakoitza. 2. **Argazkian.** Argonaren sinboloa. 3. Olerki lirikoa. Beharra. 4. Biskatu. Kromosomen osagai nagusia eta herentziaren euskarri dena. 5. Bokal errepikatua. Agintzaile, jauntxo. Idatzi bat osatzen duten hitz-multzo. 6. Etxeko erregaia (pluralean). Idiak gidatzen. 7. Hutsa, errua. Euri asko egiten duen garaia edo denbora. 8. Auhena, bereziki norbaiten heriotzak eragina. Goibeltasuna, histura.

Goitik behera:

1. Animaliak aztertzen dituen jakintza. 2. Elementu kimikoa. 3. Udarak. Hegazti sarraskijale, putre. 4. Bokalik gabeko ardi. Haitzuloetako sarrera estua. 5. Betaurrekoak saltzen dituzten denda. 6. Barau. Tulioaren sinboloa. 7. Aldapa. Aisatu aditzaren erroa. 8. Medikua jantzi. 9. Iraina, desohorea (Iparraldean). 10. Aranondoaren fruitu. Nihaur (alderantziz). 11. Truke. 12. Sustrai. 13. Haur, ume txiki (Bizkaian). 14. ... egin, eskaini eta ez eman. 15. Garaia, tartea.

Londresko bonbardaketan

Bigarren Mundu Gerraren erdian iritsi zen Jon Etxabarri Londresera Eusko Jaurlaritzaren misio ezkutatu bat betetzera. Aireportuan taxia hartu eta Trafalgar Square-ra joateko eskatu zion taxilariari.

Londresera sartzen ari zirela, bat-batean, alemaniarren hegazkin eskuadrila bat agertu zen zerutik eta hiriburua bonbardatzen hasi zen. Jon Etxabarri autoaren atzeko aldean makurtu eta otoitz egiten hasi zen. Ziur zegoen ez

zela handik bizirik aterako eta familiaz eta ordura arte bizitutakoez oroitzen egin zuen bide guztia. Trafalgarrera iritsi zirenean, ordea, bonbardaketa amaituta zegoen eta jendea ezkutalekuetatik ateratzen hasia zen.



www.ww2incolor.com

Taxilariari ordaindu eta halaxe esan omen zion:

— A ze zortea izan dugun, ezta?

—Bai! —lasaitasun osoz taxilariak—. Semaforo guztiak berde egokitu zaizkigu!

Sudokuak

Erraza

	7	3			8			6
		8		3		7	1	
1	2		5					8
2		9	7	6			8	5
		4	8		5	6		
6	8			2	1	4		7
3					2		7	4
	6	7		5		8		
8			1			5	6	

Zaila

	8			2				
					7			
4	5				3	9	2	
			1			8		
5	4						3	1
		2			4			
	1	7	2				6	3
			7					
				9			5	

Soluzioak

3	9	6	5	7	1	4	2	8
1	2	8	3	5	6	7	9	4
7	4	1	6	8	2	9	7	3
6	8	5	3	2	1	4	7	9
2	3	7	9	6	8	5	1	4
5	1	4	2	7	3	6	8	9
8	7	3	4	1	9	5	2	6
9	5	2	7	4	8	3	6	1
4	6	9	8	3	5	1	7	2

Erraza

Zaila

8	6	4	3	1	7	5	2
3	2	5	7	4	6	1	9
9	1	7	2	5	8	4	6
1	3	2	5	8	4	6	7
5	4	8	6	7	9	2	3
6	7	9	1	3	2	8	4
4	5	1	8	6	3	9	2
2	9	3	4	1	7	5	8
7	8	6	9	2	5	3	1

Ezker-eskuin: 1. Ziru, Birla, 2. Onddoak, Ar. 3. Oda, Premia, 4. Likatu, Adn, 5. Oo, Tirano, Testu. 6. Gaski, Iratzen, 7. Akatsa, Furtu, 8. Adia, Malenkona. **Goitik behera:** 1. Zoologia, 2. India, 3. Uak, Sai. 4. Rd, Aitaka, 5. Opatka, 6. Barut, 7. Ike, Aisa. 8. Mantel, 9. Laidoa, 10. Aran, 11. Truk. 12. Erra, 13. Sein, 14. Tait, 15. Unea.

GARTXOT



15€

ARGIAREN
HARPIDEDUNENTZAT

12€



Osasuna

JABIER AGIRRE

Bizkarra min arrastorik gabe

HAMAR BIZTANLETIK SEI bizkarreko minaz kexatzen dira beren egunero-ko bizimoduan. Baina osasun-arloko aditu guztien iritziz, molestia horien %80 ez lirateke gertatu ere egingo jendeak ohitura osasungarriak edukiko balitu. Hain ugariak den min hori eskoliosia bezalako bizkarreko desbideraketekin, edo hernia diskalen moduko arazo larriagoe-kin lotu izan den arren

denbora luzean, duela gutxi argitaratu diren ikerketek argi eta garbi frogatu dute estresa eta gorputz-atal horretan pilatutako tentsioa izan ohi direla kasurik gehienetan mina abiarazi eta hor mantentzen duten benetako eragileak.

Dena den, mina oso zorrotza bada, analgesikoe-kin desagertzen ez bada, astebetetik gora ere hor jarraitzen badu edo sukarrarekin edo indar-galerarekin batera agertzen bada, onena medikuarengana joatea izango duzu, zure kasua behar bezala aztertzeko.

Postura zuzena mantendu

Bizkarra jarrera egokian edukitzea ezinbestekoa da inguru horretan tentsiorik ez pilatzeko eta minari aurre hartzeko. Lanean, edo ikastekoan, baita etxeko lanak egiterakoan ere, arreta pixka bat jartze hutsarekin %70ean gutxituko da lunbagoa -bizkarraren behe aldeko min zorrotza- jasateko arriskua.



SALUD.FACILISMO.COM

Hona hemen lagungarri gertatuko zaizkizun aholku sinple batzuk:

Luzatu gorputza ohetik jaikitzerakoan. Ez atera ohetik bat-batean, iratzargailuak jo orduko. Aurrena luzatu itzazu besoak eta zangoak, nagiak ateratzeko, eta gero eser zaitez poliki-poliki ohe ertzean.

Ez eman ordu gehiegi zutik. Zutikako jarrera da bizkarrezurarentzat okerrera. Beraz, zutik ordu asko egitea beste erremediorik ez baduzu, pasatu gorputzaren pisua txandaka zango batetik bestera eta erabili aulki baxu bat atsedene-ko hanka horren gainean bermatuz.

Ondo eseri. Eserlekuak ez du bigunegia izan behar, ezta baxuegia ere. Bizkarra zuzen eta aulkiaren kontra mantendu, tartean inolako hutsunerik utzi gabe. Zure gorputzak L baten moduan geratu behar du eserita zaudela.

Lotarako hartu jarraia fetala. Albo baten gainean etzanda, belaunak bularraldera bilduta dauzkazula. Horixe da bizkarreko minak saihesteko posturarik onena, fetuak amaren sabelean dagoenean berez hartzen duena.

Oinez ibiltzean, eduki bularra aurrera irtenda. Bizkarra ez da okertuko, eta etorkizunean ager daitezkeen

molestiak prebenituko dituzu.

Mina arintzeko ariketak

Eman ditugu bizkarreko minak prebenitzeko aholku sinple baina aldi berean eraginkor batzuk. Hala ere mina agertzen bada, zer egin?

Lepoko estiramenduak. Lepoko minari aurre egiteko, makurtu burua eskuinera eta ezkerre- ra, eta jarraian jaso bi sorbaldak aldi berean.

Lasaitu bizkarraren goiko alde. Jar zaitez belauniko koltxo- neta baten gainean eta makurtu gerria eta gorputz-enborra aurre- rantz, erabat luzatuta daukazun besoak zoruan bermatzeraino.

Gerrian presiorik gabe.

Etzan ahoz gora eta besarkatu zangoak, belaunak bularrerraino jasotzen dituzun bitartean.



Babeslea: iametzta Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametzta
interaktiboa
www.iametzta.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Lorra

BASOA GURE ETORKIZUNeko energia iturri bihurtu behar dugula esaten dudanean, ez dut duela mende beteko jendartearen bizimodua goraiatzeko, ez dut lorrean aritzen zen idi-buztarri haren abiadurara makurtu nahi. Gure lurra eman ahal duen etekin onena zein den aztertzea besterik ez dut proposatzen. Gure basoaren aberastasuna nora bideratu, nola arteztu. Hirigintza ez beste, lurrari lotutako langintzetan ari den jende asko lur jota dago. Basogintzan ari direnak baina, ezin beherago hondoratuta, lurra ez, erreka jota.

Zuhaitz arteko langintza horretan irtenbidea bakarra da: aldaketa. Aldakuntza omen da betikoa den gauza bakarra eta burutu dezagun, bada, orain ere. Ez dago denbora alferrik galtzerik. Ez gaude astia eman eta denbora-pasa egoteko moduan. Errotiko aldakuntza nahitaezkoa da. Datorren belaunaldiak eta, batez ere, hurrengoak zer baso izango duen erabaki beharrean gara, ezinbestean. Etsi-etsian gaurko txepelkeria utzi eta erabaki historikoak hartzea da gure eginbidea. Eta hori egiteko era bakarra dago: denon

artean. Denok elkar hartuta. Administrazio publikoak zeresan handia du, baina herrigintza da hau, denona, herrilana. Helburuak, helburu horietarako bideak, bide horiek gauzatzearen adierazleak, adierazle horien jarraipena eta jarraipen horren emaitzak, denak lotzea da eginbeharra. Maila guztietan arautuko den filosofia adostu eta gero. Horra hor koxka. Eta filosofian betiko galderaren estutasuna: norbana-koaren alde edo herriaren alde. Basoak denona behar du. Horra eredu, herriaren basoa.

Ondo planifikatu eta taxuz antolatuz gero egurra onroso eman eta euskaldunon energia beharraren zati handi bat ase dezake. Garai bateko herri-basoak bezala. Unamunok ederki asko jaso zuen lorra lanean bezala. Denon artean. Denon artea beharko da.

Gure zuraren balioa ez baina prezioa lur jota dabilenean, zur-papurra, peleta, ezpala... Dena egokia izango da etorkizuna bertotzeko.

Hara, non arraio piztu ote zait baso-berritzearen aldeko su hau?



WOUTER HAGENS



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Galdera bat egin nahi nizuke: estakak egiteko, alkazia zer ilargitan bota behar da?

Miriamgoitia-k www.argia.com-era bidalia.

Kaixo. Alkazia edo sasi-akazia (*Robinia pseudoacacia*) estakak, hesolak, baldoak, taketak edo zutoiak egiteko bota nahi baduzu, ahal den gogorren zurrunen eta luzeen iraunaraziko dion sasioan botatzea komeni da. Izerdi gutxiena duenean, negu-neguan, alegia. Ilargiari dagokionez, bestela dioen jendea bada ere, nire ustez ilbeheran bota behar da. Aurtengo neguari begira jarrita, abenduaren 10etik 23ra artean eta urtarrilean 6tik 19ra artean dira egun egokienak.

Sasi-akazia (*Robinia pseudoacacia*).



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Ordu eta erdiko gudontzidia

DAVID COBB



Donostia bou
Matxitxakoko itsas
gatazkan, 1937ko
martxoan. Hilabete
batzuk lehenago
ontzia frankista zen
eta *Virgen del*
Carmen zuen izena.

BILBO, 1936KO ABENDUAREN 6A. *Virgen del Carmen* bou frankistaren tripulazioa matxinatu egin zen, eta ontzia portuan sartu zuten. Pasaiaiko Flotako ontzia bezperan atera zen basetik. Gauerdi inguruan guardiako kaboek komandantea lotu zuten lehenik, eta bi makinariak ondoren. Tripulazioko gainerako kideek bat egin zuten kaboek asmoekin, eta ontzia Bilbora eraman zuten. Brankako kanoia aldatu, ontzia *Donostia* izenaz bataiatu eta, hala, Euzkadiko Gudontzidiak bere lehen boua lortu zuen.

Urte hartako urrian erabaki zuen Jose Antonio Agirre lehendakariak Defentsa Sailaren baitan Itsas Saila sortzea. Departamendu berria urriaren 25ean hasi zen jardunean, Itsas Armada Errepublikanoari lagunduko zion flota osatzeko. Ontzidi xumeak ez zuen itsas guduetan zuzenean sartzea xede; arrantza babesteko, eskumeneko uretako nabigazio askea zaintzeko, eta euskal portuetako sarrerak inolako oztoporik gabe mantentzeko sortu zuten.

Bou edo arrantza-ontzi armatuak izan ziren ontzidiaren funtsa, eta lehen, *Donostia*, ezustean lortu zuten abendu hasiera hartan. Hilaren 9an

zenbait bakailao-ontziri izenak aldatzea erabaki zuten: *Hispania*, aurretantzean, *Araba* izango zen; *Euzkal-Erria*, berri, *Bizkaia*; *Mistral*, *Gipuzkoa*, eta *Vendaval*, azkenik, *Nabarra*. Horiei *Goizeko-Izarra* eta *Iparreko-Izarra* ontziak erantsita, 1937ko urtarrilaren erdialdean, euskal itsas armada zazpi bouk osatzen zuten. Eta talaia nahiz zelatari zerbitzuak antolatzen hasi ziren zortzi minaketariz eta beste hamar ontzi txikiagoz lagunduta. 900 bat lagun aritu ziren itsas armada berezian.

Martxoaren 5ean, *Canarias* gurtzontzi frankista *Galdames* merkataritza ontzia atzematen saiatu zen Matxitxako lurmuturretik hurbil. Baina euskal bou txikiak ontzi zibila babesten ari ziren. *Canarias* izan zen tiro egiten lehena. *Gipuzkoa* jo zuen lehenik, *Donostia* gero, baina biek ihes egitea lortu zuten. *Nabarra*-k, ordea, ez zuen amore eman, eta azkenean frankisten artilleriak hondoratu zuen. Matxitxakoko gatazka galdu zuten, baina ezin esan euskal itsas armada ofizial bakar hura etsaien aurka borrokatu ez zenik. Ordu eta erdiz behintzat.



Arrastoak

Charles De Gaulleren 300 gutun eman dituzte argitara

PARISKO Gutun eta Eskuizkribu Museoak orain arte argitaratu ez diren Charles De Gaulleren 300dik gora eskutitz ipini ditu bisitarien eskura. Bigarren Mundu Gerrakoak dira, De Gaulle Alemania naziaren aurkako indar frantziarren buru zen garaikoak.

Museoko arduradunen esanetan, De Gaullek uste zuen munduaren aurka borrokan bakarrik ari zela, jeneralak eskuz idatzitako testuek adierazten dutenez. Gainera, gutunotan, AEB gogor kritikatu zuen, bere ustez potentziak ez zuelako ahal zuen guztia egiten alemaniarrek mendean hartzeko. Sobietar Batasunaren ahalleginak, aldiz, goraipatu egin zituen.



AEBKO GERRAKO INFORMAZIO BULEGOA

Charles De Gaulle 1942. urte inguruan, argitaratu berri diren gutunak idatzi zituen garaian.

Finantza eta ekonomia krisia

Badago alternatibarik

Herritarrek krisi ikaragarria jasaten ari dira “merkatuek” eraginda. Banku handiek, nazioarteko inbertitzaileek, Nazioarteko Moneta Funtsak, eta Europar Batasuneko gobernuak osatzen dituzte merkatu horiek, eta kontzientzia publikoan zabaltzeko nahi dute ez dagoela beste alternatibarik kapitalismo basatia baino. Baina bai, badago alternatibarik. Horixe azaldu digute Vicenc Navarro, Juan Torres eta Alberto Garzón adituek *Hay alternativas* liburuan.

DANIEL UDALAITZ


HILDAKO GEHIAGO uzten ditu bide bazterrean, egunetik egunera, finantza, ekonomia eta lan munduko krisiak: enpresen itxiera, ordainketak etetea, kiebrak, Enplegu Erregulazio Espedienteak (EEE), langabetuen zerrenda etengabe handitzea –Espainiako Estatuan ia bost milioi langabetu daude (%20) eta Frantziako Estatuan ia hiru milioi (%9,3)–, murrizketak... Nahikoa da egunkarietako lerroburuak irakurtzea esaten ari garena ziurtatzeko.

Hego Euskal Herrian, egoera ez da oso bestelakoa. Langabezia tasa hazten ari da eta %14 ingurura iritsi da jadanik. Azaroan, lau lurraldeetako langabetu kopurua 190.813koa zen, urrian baino 3.441 langabetu gehiago eta duela urtebete baino 15.299 gehiago. 2012 urtean, gainera, ez dirudi egoerak hobetzera egingo duenik. Izan ere, EEEak ugaritzen ari dira, eta murrizketa sozialak eta langileen eskubideen

kontrako erasoak bidea egiten ari dira enpresa publiko eta pribatuetan. Bazterturik dauden herritarren diru-sarrerak, alegia, errenta basikoarekin ozta-ozta bizi direnenak urritzen ari dira, eta jende gutxiagorengana iristen dira gainera. Esklusiaren eta pobrezia-aren zakua loditzen ari da. Hurrengo urtean atzeraldia espero da ekonomian, esportazioak gutxituko baitira –Euskal Herriko ekonomiarentzat oinarritzeko arloa– eta kontsumoak behera egingo baitu.

Bitartean, krisitik ateratzeko errezeta bakarra defizit publikoa murriztea dela diote, inbertsioa abandonatu eta merkatuei errentagarritasuna bermatzeko. Aldiz, erreforma fiskala ahanzi dute, baita amarruak eta paradisuak pertsegitzea ere, bankariek eta aberastasun handiek ederki asko ezagutzen dituzten horietatik hain zuzen. Eta horrela, langabezia eta desberdintasun soziala haztea baino ez dute lortu.

Egoera are larriagoa da, kontuan izaten badugu gizartea gidatzen eta kontrolatzen duten euren hedabi-



Finantza krisiak arriskuan jarri du mundua agintzen duen sistema kapitalista. Ekonomia eredu horretan sakontzea eta herritarren ongizatea murriztea baino ez dute proposatu nazioarteko liderrek. Hainbat adituren ustez, aldiz, badago alternatibarik.



Abenduaren 9an Bruselan egindako Europako Kontseiluaren goi bilera. Batzar erabakigarritzat jo zuten askok euroaren krisiari eta oro har Europa jasaten ari den finantza astinduari aurre egiteko.

deak erabili dituztela iritziz publikoan porrot sentsazioa zabaltzeko, eta kapitalismo basatia baino beste alternatibarik ez dagoen ideia erroztzeko. Merkatu horien ase ezinezko goseari eta harrapaketari laguntzen diote horrela.

Badago alternatibarik

Ez da egia alternatibarik ez dagoenik. Badaude. Azken urteotan ekonomista ugari ari dira alternatiba horiek teorizatzen. Esaterako, 2010ean Frantziako lau akademikok *Manifeste d'économistes atterrés* (Ikaratutako ekonomisten manifestua) idatzi zuten alternatiba horiek plazaratuz, eta hilabete gutxiren buruan 3.000 pertsona kualifikatuaren babesa jaso zuten. Berrikitan, beste hiru adituk lan zorrotza idatzi dute ildo beretik. Kataluniako Vicenc Navarro zientzia politikoetako katedradunak, eta Espainiako Juan Torres eta Alberto Garzón ekonomistek idatzitako *Hay alternativa. Propuestas para crear empleo y bienestar social en España* (Badago alternatibarik. Espainian enplegua eta ongizate soziala sortzeko proposamenak) liburuaz ari gara. Argitalpena www.rebellion.org webgunean irakur daiteke oso-osorik pdf formatuan. Hasiera batean Prisa taldeko Santi-

llana argitaletxeak eraman behar zuen paperera, baina azken orduan egileei jakinarazi zien ez zela publikatuko. Ondorioz, Internetez kontsultagai jartzea erabaki zuten. Zein interesi erantzuten dio Prisa?

Liburuaren aitzin-solasa Noam Chomsky idazle ezagunak idatzi du, eta bertan dio bizi dugun egoera honek ez diela "naturaren legeei, arau ekonomikoiei edo izenik gabeko indarrei erantzuten, erakunde-egiturek euren mesedetarako hartutako erabaki zehatzei baizik". Chomskyk dioenez, horrek berdin segituko du, baldin eta erabaki eta planak itzularazten ez badira ekin-tza eta mobilizazioekin. Bere ustez, konpromisoa behar da epe motzera egingarriak diren programak aurrera ateratzeko, baita "erakunde zapaltzaileek duten zilegitasunik gabeko autoritatea zalantzan jartzeko" ere. "Garrantzitsua da alternatibak badaudela nabarmen-

tzea" dio pentsalariak eta M-15eko mobilizazio gisakoak jartzen ditu adibidetzat.

Horretarako, 115 proposamen zehatz egin dituzte liburuan. Esaterako, mundu mailako gobernu bat osatzearen alde daude, talde pribatu multinazionalen boterea murrizteko eta bestelako mundua eraikitzeko. Nazioarteko erakunde demokratizazioa eskatzen dute (Mundu Bankua, Nazioarteko Moneta Funtza eta Nazio Batuen Erakundea), aberastasunari loturik ez dauden eta beto eskubiderik ez duten botoekin. Finantza arloan zera proposatzen dute: espekulaziorako balio lezaketan finantza ohitura eta produktuak, maiztasun handiko eragiketak, banku-sekretua eta paradisu fiskalak debekatzea. Finantza eragiketentzako zergak ere eskatzen dituzte ekonomistok, eragiketaren erabilgarritasun sozialaren arabera.

Europar ogasun publikoaren alde

Vicenc Navarrok, Juan Torresek eta Alberto Garzónen europar estatu konfederatua proposatzen dute, azken batean. Zentzu horretan, Eurobako Banku Zentrala eraberritu behar dela eta Europako Parlamentuan azalpenak eman beharko lituzkeela diote: "EBZ

Noam Chomsky idazlearen ustez bizi dugun egoerak erakunde-egiturek euren mesederako hartutako erabaki zehatzei erantzuten die

Erantzukizunak argitzetik harago, kontsumo eta produkzio eredua aldatzeko proposamenak ere egiten dira Internetez zabalduriko liburuan

egiazko banku zentrala bihurtu beharko litzateke, eta ez egun dena: bankuen *lobby* bat”. Horrez gain, europar ogasun publiko bat ere eskatzen dute, orduan eta errenta altuagoa izan orduan eta karga fiskal handiagoa ezarriko duen gehikortasun izaera sakona izango duena. Kalifikazio agentzia pribatuei zor publikoa neurtzea debekatu beharko litzatekeela ere diote egileek eta horretarako agentzia publikoa sortzeko beharra ikusten dute. Europako Inbertsio Bankua indartzearen alde dira, inbertsio horiek egungo garapen eta produkzio eredua aldaraztera bideraturik badaude behinik behin.

Liburuan, kapitalaren kontrolaz asko hitz egiten dute, mugimendu espekulatzaileekin amaitzeko modu bakartzat baitute kontrol hori. Bestalde, Europan soldatak ezartzeko koordinazioa behar dela uste dute Navarro eta bere bikideek; hori lortzeko, Europa osorako hitzarmen-kolektiboak dituzte aipagai, lanaren eta kapitalaren arteko akordioa egitea alegia, errentan soldatek duten pisua pixkanaka errekuiperatzeko helburuz, beti ere: “Bhaduri eta Marglin-en eredutik abiatuta egin diren ikerketak enpirikoei diote Europako ekonomia gehienetan hazkunde ekonomikorako onena soldatak igotzearen alternatiba dela”.

Krisiaren erantzuleak depuratu

Baina batez ere, krisiari aurre egiteko berehalako erantzunak behar dira. Finantza eta ekonomiaren arloan munduan esanguratsuak diren pertsonak osatutako batzorde bat osatu eta ardurak depuratzea ezinbestekoa dela diote alternatiba plazaratu duten ekonomistek. Esaterako, Espainiako Estatuan higiezin burbuila sortu eta zorraren



Hay alternativas liburua Sequitur argitaletxeak eta Espainiako ATTAC elkarteak argitaratu dute Internetez, Prisa taldearen Santillanak paperera eramateari uko egin eta gero.

maila muturreraino eraman duten politikari eta agintarien erantzukizuna argitu beharko luke batzorde horrek.

Zor publikoari dagokionez, adituen arabera, sinatutako kontratuen auditoria egin beharko litzateke, zilegitasunik ez duten kontratuak aurkitzeko. Horrez gain, Europako Banku Zentralak zor publikoaren tituluak jaurtitzeko aukera izan dezala exijitzen dute, herrialdeen aurrekontuak eta laguntzak finantzatzea lagunduko bailuke horrek. Europako edozein erakunde egitura aldatzeko, erreferendum loteslea ere proposatzen dute Navarro, Torresek eta Garzón.

Lehendik pribatizatze prozesuak jasandako enpresa handien eta aurrezki kutxen nazionalizazioa ere eskatzen dute, “baina ez banku pribatu arduragabeek orain arte egin duten negozio bera egiten jarrai dezaten” diote, baizik eta produkzio jarduera jasangarriak finantzatzeko eta merkatal banku pribatuaren kontrapisua izan dadin. Bestalde, banku publiko handi bat sortu beharko litzatekeela uste dute, gisa horretan enpresek eta laguntza behar duten norbanakoek kredituak

aiseago lortzeko. Ildo horretan, bankuek eta finantza aktiboek lortutako ohiz kanpoko etekinei zergak jartzea derrigorrezkoa dela diote.

Baina erantzukizun eta zigorretatik harago, kontsumo eta produkzio eredua aldatzeko proposamenak ere egiten dira Internet bidez zabaltzen liburuan. “Ekonomista konbentzionalek BPGan soilik jartzen dute begia (...) baina ez badituzte aintzat hartzen energia gastu erreala, hondakinak, eta hazkunde horrek dakarren naturaren kontsumoa, erabat engainagarriak diren kontuak egiten dituzte. Gisa horretan, naturaren oinarrian ezinezkoa den produkzio eta kontsumoa bultzatzen dute”. Horren aurrean, ekonomia ekologikoagoa (ikus NET HURBIL, 48 orrialdean) lehenetsi behar da, eta tokian tokiko enplegua sortzeko, adibidez, nekazari eta lehengai saltzaileen kooperatibak interesgarriak dira egileen aburuz; produktuak herrietan banatzea ekarriko luke bitartekariak egun duten pisu demasa arintzea. Funtsezkoa da produzitzen eta kontsumitzen diren tokiak hurbiltzea “merkatal zentroen kulturarekin” amaitzeko bidean. Jakina, horretarako herrietako merkataritxikiei finantzatzeko lagundu behar zaie.

Vicenc Navarro, Juan Torresek eta Alberto Garzónen neoliberalismoaren filosofiaren ardatzak desmuntatzen dituzte liburu honen bidez eta beste Europa bat posible dela aldarrikatzen dute. ■



MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Itziar Idiazabal

UNESCO Katedraren arduraduna

«Herri aurreratuetan hezkuntza ez dago botereko alderdiaren burutazioen menpe»

Mundua. Bertan den askotariko ondarea. Bertan hitz egiten diren hizkuntzak. Munduko hizkuntza ondarearen UNESCO katedraren arduradunarekin mintzo gara, gure hizkuntzaz.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Honela irakurri dugu: “Katedraren helburu nagusia munduko hizkuntza ondarearen zaintzan laguntzea da, ikerketaren eta sentsibilizazioaren bitartez, eta, batez ere, nazioarteko elkarlan akademiko eta instituzionalaren bitartez”. Ekarriko diguzu esaldi biribil hori zehaztasunera, faborez...

Katedrak UNESCOren izena eramateak nazioartea esan nahi du, mundua, eta gure begiek, gure interesez ikusmira hori izan nahi dute. Hizkuntza ondareari dagokionez, berriz, norberarena zaintzea ezinbestekoa izanik ere, ez da isolaturik bizi edota garatzen. Alderantziz, besteekin elkarerraginean hobeto gauzatzen dela uste dugu. Eta aha! lein horretan, zorionez, badago norekin lan egina. Nolanahi ere, bestea ikusteko ahalegina egiten ikasi egin behar da, sentsibilizazio hori ez da berez sortzen. Eta ikertu beharrekoa asko da. Besteek dagoe-neko aztertu eta erakusten digutena, esaterako. Eta guk geuk ere gauzak hobeto ikus ditzagun derrigorrez izan behar dugu ahalik eta begirik zorrotzena.

Irakurri dugunez, Katedrak “arreta berezia jarriko du hizkuntza gutxituen inguruan lan egiten duten erkidego eta instituzioetan”. Hizkuntza gutxitu



“European gero eta zalantza gutxiago dute: elebakartasuna arazo da”.

horien artean da euskara, dudarik gabe. Zertan eragiten dio horrek gure hizkuntzari?

Euskararen ahalmenak eta ahuleziak hobeto ikusten ditugu gaur, orain dela 50 urte baino. Egoera bakoitza berezia izan arren, beste esperientzia beti da probetxugarri, baina jakina, bakoitzaren perspektibara egokitzen asmatzen den heinean. Adibide bat ematearren, 1970eko hamarkadan ikasto-

lak etxetiko erdaldunak euskaraz eskolatzen hasi zirenean, ama-hizkuntza eskolan ez erabiltzea ez zen begi onez ikusten. Horretan ziren, adibidez, Katalunian. Laster jakin genuen Kanadan ere, gure ikastolan bezala eta izen berezi eta guzti –murgiltzea, hain zuzen–, metodo aitzindari bezala erabiltzen zutela etxekoa ez zen hizkuntzan eskolatzeko prozedura. Arrazoiak? Hala egin nahi zutelako eta gauzak

egiteko modu horrek emaitza onak ematen zituelako. Erabaki bakoitzaren ezaugarriak eta ondorioak bakoitzak aztertu behar baditu ere, gauzak hobeto ulertzen dira perspektiba gehiagotatik begiratzen direnean.

Murgiltzea zela-eta, garai hartan uste okerrak eta aurreiritziak ez ziren aparte.

Hizkuntza kontuetan aurreiritziak asko dira, eta denak ez dira egokiak gurea bezalako egoeran; alegia, gutxitua dagoen hizkuntza bati laguntzeko. Besteen esperientziak eta hizkuntza eremuko zientziek aurrera egiten duten heinean, gure erabakiak probetxugarriagoak izan daitezke. Esate baterako, orain 40 urte “h”-a gora eta “h”-a behera, gure artean borrokan genbiltzanean, ez ginen ohartzen zeinen antzua zen eztabaida hura.

Alferrikakoa...

Hizkuntzaren biziraupenerako ez dira hain garrantzitsuak idazteko arau batzuen erabakiak nola hartzen diren; arau batzuk behar dira, idazten hasten garen garaian ziurtasuna izan dezagun, baina seguruena zuzentzaile informatikoak gehiago egin du euskararen erabilera idatzia areagotzeko, 1960ko hamarkada hartan hartu ziren erabakien arrazoi filologikoen zuzentasunak baino. Dena den, idazteko estandarra erabaki beharrak ezinegon handiak sortzen ditu hizkuntza gutxituetan. Erabilera areagotzekotan, zerbait behar da, abiapuntu bat, bai, baina haren ezaugarriak azken batean ez dira hain garrantzitsuak. Zer da garrantzitsua, hortaz? Hizkuntza –idatzia, kasu honetan– erabiltzeko gogoia, beharra, abagunea eta ohi-tura eragitea. Estandarra, berez, erabilerak egiten du, ez da alderantziz gertatzen. Kontu hau orain badakigu, gure errailetan sufritu dugu-eta –geure baitan frogatu dugu–, eta eskarmentu honek beste hizkuntza erkidegoei ere, gurearen antzean leudekeenei, balio diezaike.

Nazioarteari begira, zeinen antza du euskararen egoerak?

Europako mendebaldeko beste hizkuntza gutxitu batzuen egoerarekin zerikusi gehiago du euskararenak, eman dezagun, Hego Ameriketakoekin baino. Galesa edota irlandera, adibidez, gertuago begitantzen zaizkigu, hizkuntza nagusia eta gutxitua bi familia oso ezberdinetakoak direlako, eta elkarren arteko ulermenak oso zaila gertatzen delako. Baina alderdi linguistikoak ez dira garrantzitsuenak erakutsiak jasotzeko orduan. Aldiz, badira hizkuntza gutxituetan gertatzen diren egoerak elkarren artean landu daitezkeenak. Esate baterako, oraintxe ari gara Katedratik, eta bereziki bertako kide diren Esti Amorrortu eta Ane Ortégak hasi berri duten ikerketa proiektu baten bitartez, hiztun berrien inguruko jarrerak eta ezagutzak biltzen, eta ikerketa hori Europako beste herrialde batzuetako hizkuntza gutxituak aztertzen dituzten ikerlariekin ikertzen ari gara sarean. Hizkuntza gutxituetako hiztun berrien, gurean euskaldun berrien, auzia oso garrantzitsua da. Izan ere, gurean bezala beste leku batzuetan ere, normalean eskolari esker ikasten dira hizkuntza hauek, baina etxean edo inguruan bizitasunik izan ezean ez da erraza haien erabilera sustatzea. Zaila da, eta jakitun gara, baina arrazoiak ez ditugu behar bezala ezagutzen, eta ez dakigu zein izan daitekeen konponbiderik eraginkorra.

“Hezkuntza hirueleduna? Hainbeste kostatu dena, mundu osoan eredugarri ikusi dena (hiru eredukoa), desegin, urtu egingo ote den beldur naiz”

Euskarak hezkuntza arloan duen presentzia handia, egin duen bidea azpimarratu izan duzu inoiz. Zergatik gertatu da hezkuntzan, eta ez beste arlo askotan? Herrizaingoa, esaterako. Edo Osasun arloan.

Arrazoi asko egon daitezke gertaera hori azaltzeko. Batetik, gizarte osoak onartzen du eskolaren zen-

traltasuna, bai lehen –orain dela 50 urte ikastolak hasi zirenean–, eta baita gaur ere. Erdaldunek euskarari buruz dituzten jarrera eta aurreiritziak aztertu ditugu Katedran, eta bertan erakusten denez, erdaldun haietako ehuneko oso handi bat –85 inguru–, ados dago eskolak euskara irakasteko ahalegin berezia egin behar duela esaterakoan; eta B eta D ereduek duten arrakasta iritzi honen ondorio garbia dela esango nuke. Esan behar da, baita ere, gauzak nahiko ondo egin direla: eredu hirukoitza oso asmakizun ona izan da, jendea poliki-poliki erakartzeko, inor derrigortu barik; irakasleek oso lan ona egin dute eta eman zaizkien aukerak ere nahiko aproposak izan dira. Estatutuaren ondorengo 1983ko Elebitasunaren Legea bereziki ondo gauzatu da Hezkuntza Sailan; hori ere esan behar dela uste dut, eta uzten bazait norbaiten izena ere aipatu nahi nuke: Mikel Zalbide. Mikelekin batera, haren lankideak. Egin duten lana ezin da ahaztu. Lege onak ezinbestekoak izanik ere, lege horien gauzatzea askoz ere zailagoa da. Eta euskal eskolaren euskalduntze prozesuan lortutakoak ez dira kasualitatez gertatu.

Gurean egin den lan handiak non izan lezake parekorik?

Ez ditut behar bezala ezagutzen Israeleko, Galeseko edota Zeelanda Berriko maoriek beren hizkuntza gutxitua indarberritzeko egin dituzten bideak. Baina, zoritxarrez, munduan ez dira asko beraien hizkuntza biziberritzea lortu dutenak. Halere, hizkuntza aniztasunaren galera izugarria dela ahaztu gabe, badira hizkuntza erkidego eredugarriak, modu harrigarrian bere hizkuntza mantentzea lortu dutenak. Adibidez, Brasileko pataxoak, Kolonbiako nonuyak, ikutarrak, wayuak, gambianoak edota Mexikoko edo Guatemalako maia hiztun komunitate zenbait. Baina ez dakigu –gutxi dakigu, edo nahikoa ez– zerk jartzen duen giza komunitatea bere hizkuntza mantentzera.

Beti ari gara, “euskarak asko egin du, aurrera egin dugu, asko falta da



“Ez dakigu zerk jartzen duen giza komunitatea bere hizkuntza mantentzera”.

oraindik, botila erdi beterik, erdi hutsik dugu...”. Zein perspektibaz baliatu behateke gaur egun euskarak duen egoera baloratzeko?

Ikuspegi positiboaren aldekoa naiz. Baina ez naiz inuzentea. Uste dut egindakoa onartzeak eta hartaz harro sentitzeak gehiago laguntzen duela ekinean jarraitzeko garaian, katastrofearen aldarrikapenak baino. Badakigu hizkuntza gutxituak ez duela ematen aukerarik beraren izaera gutxituaren kontzientzia ahazteko. Ezin gara, lasai-lasai errazena gertatzen zaiguna egin eta kito!-ra pasa. Normala eta naturala esaten denean ez dakit ondo zer esan nahi den. Ez dakit, ezta ere, belaunaldi berriek nola ikusten duten kontu hau. Baina egindakoaren damurik ez dut, eta garbi daukat ondorengoentzat ere gure bizimoduaren alderdi hau —alegia, gure hizkuntza eta nortasuna ezagutu eta errespetarazten ahalegintzea—, ez zaidala herentzia txarra iruditzen.

Elebakar izatea gauza murrizta da gaur egun. Euskaldun elebiduna,

berriz, erdaldun elebakarrez inguratuturik dago. Besteren buruko zorria ikusi bai, norberaren buruko bartzia ikusi ez?

Elebakar izatea arazo handia da gaur. Norberarentzat eta ingurukontzat. Gauza da, kontu hau gutxitan aipatu dela, edo hobeto esateko, kontrakoa erakutsi zaigula eredugarri. Normala, egokia, sana, elebakarra izatea da. Elebitasuna arazo bezala saldu da, bereziki hizkuntzetako bat gutxitua izan denean. Elebakartasuna... Uste dut Europan gero eta zaltza gutxiago dutela gai horren inguruan; alegia, gero eta ageriagoa

“Behingoz, hizkuntza handietako hiztunak, beraien hizkuntzarekin munduan zehar lasai bizitzeko aukera zeukatela sinesten zutenak, konturatzen hasi dira beraiek ere badaukatela ikastekorik”

da elebakartasuna arazo dela. Behingoz, hizkuntza handietako hiztunak, beraien hizkuntzarekin munduan zehar lasai bizitzeko aukera zeukatela sinesten zutenak, konturatzen hasi dira beraiek ere badaukatela, hizkuntza kontuan, ikastekorik. Elebidun edo —are hobe— eleantiz bihurtzea ezinbesteko erronka da norbanakoarentzat eta eskolarentzat. Eta gauzak baikor ikusten ahaleginduz, uste dut ekonomia —lan mundua alegia— izango dela elebitasun edota eleantiztasun eskakizun hau geroz eta ageriagoan jarriko duena. Ez da behar etiko edo akademiko hutsa izango.

Zertan ditugu immigranteak euskararen herrian? Zein da haien joera, jarrera, ezaguera?

Emigranteek, ohi denez, doazen lekura egokitze premia dute. Norberaren beharrak, ekonomikoak zein bestelakoak lortzeko, egokitze ahalmena dugu gizakiok. Zer ikusi... Gauzak bere onean —edo “bere txarrean” esan beharko nuke, beharbada— uzten badira,

leku askotan immigranteek ez dute erraz ikusiko euskararen herrian gaudela. Adineko etorkinen artean euskararekin zer gertatzen den jakiteko datu zehatzagoak behar genituzke. Haien umeez, aldiz, inguruaren arabera edota eskolako ahaleginaren arabera ongi erantzuten dutela dirudi. Guk oso lagin txikiarekin ikusi duguna adierazgarria litzateke. Segurako (Gipuzkoa) eskolako 5 eta 11 urte bitarteko ikasleek, bi urteren buruan ia bertakoak bezala egiten dute euskaraz. Hori, behintzat, badakigu. Beraz, posible da euskara ikastea nahiz eta bertan ez jaio. Era berean, badakigu –gure aniztasunean haiena aberasgarri bezala itsasteko gaitasuna baldin badugu–, etorkinak baztertu edota ezkutatu beharrean, haien izaera ezagutaraziz eta beraiek kontuan hartuz, aukera gehiago izango ditugula modu aberatsagoan elkarbizitzeko. Eskolan asko dira gartzten ari diren ahaleginak eta saioak, eta beste mailetan ere bitartekoak jartzen badira, lorpenak ere etorriko dira, seguruenik. Badirudi, euskararen gutxitasunetik euren gutxitasuna ere errazago erakar daitekeela. Badirudi biak elkarren aberasgarri bezala ikusten badira, emaitza hobea lortzen direla giza integrazioari dagokionean, handiak txikia irentsiz egiten duen bidetik baino. Baina hau beste erronka bat da euskararentzat, eskolarentzat eta gizarte osoarentzat.

Hezkuntzan egin den lan handia azpimarraturik ere, zalantzak dituzu hezkuntza hirueleduna izeneko proposamen berriaren inguruan.

Egindako bidea nahikoa kontuan ez hartzeak, autoebaluaziorik gabe berrikuntza moduan gauza ez hain berriak proposatzeak, hirueletasunean hiru eleak berdinak balira

Zuzen gabilta

“EHuko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra eta euskal irakaskuntza elebi/eleanitza nola lotzen diren, askotan galdetu izan diot nire buruari. Izan ere, badirudi bata gauza oso lokala dela eta beste berriz, erabat internazionala. Kontua da UNESCOn ere hizkuntza aniztasuna lehentasun bihurtu dela azken urteetan, eta aniztasun hori formazio edo hezkuntza eleanitzarekin lotu dela. Horrelaxe formulatu dituzte berrikitan, hau da, joan den urrian egindako biltzar nagusian. Palestina onartzeaz gainera, biltzar hartan munduko hizkuntza eta kultura aniztasuna, hezkuntza sistema eleanitzak ikertzearekin eta bultzatzearekin lotzea proposatu dute. Are gehiago, eleaniztasun horretan hizkuntza gutxituen ikaskuntza integratu beharra adierazten da, baina hizkuntza horretako erkidagoentzat ez ezik, baita hizkuntza handietako komunitateentzat ere. Hizkuntza handietako hiltunek, inguruan duten hizkuntza txikiak bat edo beste ikasteko ahalegina ezinbesteko baldintza bezala ikusi da mundua jakintsuago, aberatsago eta baketsuago izango bada. Beraz, gurean ez gabilta hain desbideratuak”.

bezala planteatzeak, euskararen inguruan dena lortua balego bezala jarduteak, beharrik ez dagoen gauzetara edota nahikoa aztertu eta justifikatu ez diren gauzetara ahaleginak bideratu nahi izateak... beldurra ematen dit. Iruditzen zait gauza bat esan eta bestea egiten dela, daukagun eskarmentua ez

dela behar beste kontuan hartu. Eredu hirukoitza –hiru ereduez ari naiz–, nahikoa ebaluatu gabe, edota haren emaitza onak kontuan hartu gabe, eredu bakar desitxuratu, helburu zehatzik gabeko bat... Nahi duenak nahi duena egiteko aukera ematen duen zerbaiteko bidea irekitzen ari dela iruditzen zait. Eta hainbeste kostatu dena, mundu osoan eredu garri ikusi dena, desegin, urtu egingo ote den beldur naiz. Lehen ere esan dut, eskolan gauzak nahikoa ondo egin dira euskarari dagokionean, baina asko dago hobetzeko. Jakina, aspaldi ohartu ginen eleaniztasuna eta ingelesa derrigorrezko eskakizunak direla. Hori lortzeko, ordea, helburu zehatzak, bitarteko egoiak eta ikerketa –ebaluazioa barne– derrigorrezkoak dira.

Orain arteko eredu sistema...

Hiru eredu sistema zaharkitua dagoela esatea ezer ez esatea da. Zaharra egokitzen bada, eta emaitza onak ematen baditu, berria bezain baliagarria edo baliagarriagoa da. Badakigu hezkuntza eta hizkuntza kontuak politikaren menpe izaten direla, baina eragin hori hain nabarmen uzten duten politikak gordinegiak iruditzen zaizkigu. Herri aurreratuetan –Europako iparraldekoak ditut gogoan orain, bereziki–, hezkuntza kontuetan gauzak mantso eta ondo pentsatuta egiten dira, ez daude politikaren, edo hobeto esan, boterean gertatzen den alderdiaren burutazioen menpe. Emaitzak ere halakoak dituzte, bereziki hizkuntza kontuetan. Heldutasun hori nahi nuke guretzat ere. Gauzak egokitzen joan bai, beti ere helburuak argi izanik, baina ez aldatu “horrela tokatzen delako” edo, besterik gabe, zahartzat bataiatu dugulako. ■



Babeslea: EHU/UPV

AMETS BATEN OINORDEKO GARA
UNIVERSIDAD VAICA EUZKO IRAKAITOLA NAGUSIA

1936

www.ehu.es/ametsbatenoiordekokara

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Topagunea Nafar Parlamentuan

ABENDUAREN 16AN, Euskararen Foru Legeak 25 urte bete ondorengo egunean, Topaguneak hitza hartu zuen Parlamentuan.

Topagunearen Nafarroako arduradun Oskar Zapatak eta Bierrik Fundazioaren arduradun Ainhoa Urretagoienak egin zuten agerraldia Hezkuntza Batzordearen aurrean. Topaguneak, Euskara Elkarleen Federazioak, Nafarroan hamasei euskara elkarte, sei aldizkari, sei irrati eta telebista bat biltzen ditu. 56 langile ari dira hedabide horietan lanean eta 500 kolaboratzaile eta boluntario dituzte. Ehun begirale-hezitzaile,

4.000 bazkide / laguntzaile eta 2.000.000 euro inguruko aurrekontua. Aldizkariak, gutxi-asko, 21.450 etxeetara iristen dira eta irratiek 125.000 entzule potentzial dituzte. Nafarroako Gobernuak 2012ko aurrekontuetan 0 euro aurreikusi ditu hedabideetan euskara sustatzeko. Azken urteotako albisterik txarre-na da —okerrago ezin zitekeen izan—, baina ezin esan bestela ere eskuzabal ibili direnik azkenaldian. Bilakaera penagarria baino lotsagarria da:

-2003: 228.156 euro.
-2007: 210.430 euro.
-2008: 310.000 euro agindu eta 156.000 banatu.
-2009: 9.567 agindu eta batere banatu ez.

-2010: 170.000 euro.
-2011: 160.000 agindu eta gero beherapenak.
-2012: 0 euro.

Abenduaren 16an, Oskar Zapatak eta Ainhoa Urretagoienak, hedabide guztien izenean, hainbat eskaera zehatz egin zizkieten parlamentariari:

- 2012. urtean hedabideetan euskara sustatzeko 650.000 euroko partida izatea. %80 gutxienez banatu dadila euskara hutsez lan egiten duten hedabideen artean.

- Euskarazko hedabideetan Gobernuak publizitatea sartu dezala.

- 2012. urtean euskarazko kultur jarduerak sustatzeko 250.000 euroko partida. Oraingoz hamar euro daude aurreikusita.

- Neurri horiek izan daitezela lehenak euskarazko hedabideak eta erabilera sozio/kulturala sustatzeko lan egiten duten egoera egonkortzeko.

- Horretarako 2012. urtean Gobernuak jar ditzala mahai gainean egokiak diren markoak eta lankidetzak hitzarmen egonkorren bidez jaso ditzala.

Oskar Zapatak eta Ainhoa Urretagoienak gogorarazi zuten 2012an gaztelaniaz emititzen duten hiru telebisten artean 2.450.000 euro banatuko dituztela. Euskarazko hedabideek, denek batera, urterik onenean 230.000 euro jaso dituzte eta ordezkari politikoek erremediorik jartzen ez badute, datorren urtean diru-laguntzarik ez dute jasoko euskarazko hedabideek.

Zapatak eta Urretagoienak Xaloea Telebistaren eta Euskalerrria Irratiaren egoerak ere mahai gainean jarri zituzten. Telebistak ez dauka digitalizazioa emiteitzeko baimenik eta beraz ez du diru-laguntzarik jasotzen. Irratia, berriz, ez da legala.

Gobernuak beti dauka aitzakia- ren bat halako sarraskiak egiteko, aurreko krisia. Alabaina, Topagune-ko ordezkariak ozen esan zuten Parlamentuan: “Nafarroako euskal komunitatearen suntsipena bilatzen du hizkuntza politikan ematen duen urrats bakoitzean. Batzuetan maki-llatuaz, besteetan gordinki”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Lalok burua jasoko balu

Patxi Lopez lehendakariak “diktadore” jarrera erakutsi du sektore publikoan nabarmendu diren lan gatazken aurrean. Murrizketa antisozialak eginez, borrokan jarri dituzte sindikatuak, eta batez ere, sektore publikoko langileak. Osakidetzan, Hezkuntzan eta Bilboko Metroan jadanik hasi dira mobilizazioak eta grebak, eta beste sektore publikoetan ere hasiko dira. Lehendakariak, gainera, aurrekontu antisozialak iragarri ditu 2012rako, langabezia eta babes-gabetasun sozial gehiago eragin eta ekonomia berriz aktibatze balioko ez dutenak. Lotsagarria da lehendakariak berak “nazkagarritzat” jotzea aurrekontuak. Gobernutik talde ahulenei erasotzen die, oinarritzko errentatik “bizi” direnei. Bilboko Metroko grebalariak mehatxatzen ditu, Ertzaintzak esku hartuko duela esanez eta %95eko zerbitzu minimoak ezarri.

PPrekin egindako akordioaz harago, Patxi Lopez lehendakari da “Laloren semea” delako. Patxi Lopezek ez luke inolako garrantzi historikorik izango, bere aita Lalogatik ez balitz. Diktadura frankistan eta klandestinitate garaian Rubial, Redondo —UGTkoa eta PSEkoa—, Tueros, Morin —CCOOkoa eta PCEkoa— eta beste batzuen “talde” berekoa zen Lalo. Artikulu hau idazten duenak haiek guztiak gertutik ezagutu zituen Bizkaiko meatzaldean 70eko hamarkadan. Badut, hortaz, haien langile borroka klandestinoen berri. Zenbait bileratan parte hartu nuen. Vietnamita zaharrekin propaganda ezkutuan egiten lagundu nuen. Eta euren emazteak Burgoseko eta Valladolideko zenbait herritara eramaten ere lagundu nuen, frankismoak aldi baterako konfinatzen zituenean. Horregatik uste dut Lalok burua jasoko balu eta bere semearen “greba puska-tzaile” jokaera ikusiko balu —patronalari mesede egiten langileei baino—, herentzia kenduko liokeela, ideologikoki, sindikalki, sozialki eta politikoki behintzat bai. UGT eta PSEren herentzia historiko, politiko eta sindikal guztia pikutara bidali baitu.

Juan Mari Arregi



Biktimak, elkarbizitzaren ate

ARNALDO OTEGI: "ETAren jardunaren ondorioz beren askatasuna murriztua zuten hautetsi guztiek seguruenik eta ziur sentitu zuten poza eta lasaitua partekatu nuen nire ziegatik. Biziki poztu nintzen haiek eta haien familiengatik". SER irrati kateari Otegi berriki emandako elkarriketaz argitaratutako zatia da eta ETAk urriaren 20an egindako adierazpenarekiko sentipenetakoak azaltzen ditu zati honetan. Beste esaldi hau aurtengo urtarrilean EPPKtik kanpo dagoen Langraitzeko preso talde bati ARGIAK egindako elkarriketatik ateratakoa da: "Besteen sufrimendua ikusita, gu ere hunkitzen gara". Kasu batean zein bestean adierazten denari enpatia deitzen zaio, biktimei buruzko edozelako auzien konponbidean behar den oinarriko sentimendua. Eta enpatiaren oinarriko ezaugarria da ezin dela antzestu, egiazkoa behar duela izan.

Eta, beraz, nola egin sinesgarri enpatia keinuak Euskal Herrian bizi izan dugun gatazkari dagokionez? Apurka, keinuen metaketaren bidez, oinarriko hausnarketetatik hasi eta gatazkaren aktore nagusiei euren erritmoak errespetatuz.

Alde horretatik, Gernikako Akordioak egin berri duen adierazpenak ez du inor ezustean harrapatu, ez da berrikuntza handirik bertan, espero zitekeena esan da. Areago, akordio horretako hainbat alderdi eta erakunde askoz urrutirago ere joan dira biktimen inguruko hausnarketetan. Baina, Gernikako Akordioaren adierazpen hori oso garrantzitsua da, ondoren bestelako hesiak gainditu ahal izateko ezinbesteko urratsa delako.

BIKTIMEN gaia ondo jorratzeak baditu bi helburu giltzarri edozelako



bake prozesutan: bata da biktimen alde humanoa kontuan hartzea, haien mina onartzea eta berau bideratzeko kalte-ordainak zehaztea; bestea elkarbizitza da, biktimen gaia adostasunez jorratzea baita elkarbizitzaren ate nagusia.

Gernikako Akordioak onartutako adierazpenak bere baitan ditu biktimen gaiari adarretatik heltzeko osagai ia guztiak: biktima guztiak kontuan hartzea, elkarrenganako errespetua eta onespina direla elkarbizitzaren oinarriak; erreparazioaren beharra; egia; oroimena; gatazkaren konponbiderako akordioa; eta etorkizuneko desadostasunetarako biolentzia bideak arbuiztea.

Osagai hauekin presta liteke elkarbizitzarako otordu oparorik, beti ere sinesgarritasunez jorratzen badira. Eta gaur gaurkoz hori da arazorik nagusia, akordio politikoa lortu behar duten aldean arteko sinesgarritasunik ez dagoela; baina hau ere egiten ari den bidea da, aldean arteko sinesgarritasuna gaur atzo baino handiagoa baita. Eta horren erakusgarri dira tantaka ematen ari den adierazpen eta ekitaldien zerrenda. Abuztuaren 9an Zumaian ETAk hildako Joxe Mari Kortaren omenaldian izan zen Bilduko ordezkari bat; abenduaren 2an Azpeitian Iñaxio Uriaren hilke-

taren hirugarren urteurreneko ekitaldian ere bai; joan den astean Gipuzkoako Diputazioak Frankismoaren biktimen omenaldian alderdi guztiak izan ziren, PP ezik; Otegiaren elkarriketak...

Gabezien artean bi azpimarra daitezke: Akordioa biktimen egoera eta mina bideratzeko neurriak hartu beharraz mintzo da, baina ez du adierazten hori zertan zehatz edo gauza litekeen; hori sakontasunez egitea ez dagokio agiri horri baina pista batzuk eskaintzea akaso bai. Irakurketa etiko urrienari ere uko egiten zaio, seguruenik hor kontsentsuak adostea gaitzagoa delako —eta akaso oraindik ezinezkoa—. Baina irakurketa hori ere behar da biktimei buruz aritzean, berdin ETAren biolentzia aztertzerakoan edo Estatuarena.

Azken finean, hau urrats esanguratsua da, baina oraindik ENAM-en antolatutako ezker abertzaleak bakarka egingo duen adierazpena falta da. Horren zain dira Gernikako Adierazpen hau mesfidantzaz hartu dutenak, eta hori ari ei da prestatzen aspaldi ezker abertzalea, edo hobeto esanda, prestatua izango du eta bere unearen zain dago.

Eta bai, galde dakieke ere Estatuaren alboan giza eskubideen urraketak babesten aritu direnei ea beraiek zer, ez ote duten beren eboluziorik erakutsi behar, baina honetan ere, ezker abertzaleari onura gehiago emango dio bere bide aldebarrekoarekin aurrera egitea, Estatuak zer egiten duen zain egon gabe. Sorturen legeztatzeak erraztuko luke bidea, beste hainbat gauzatan moduan seguruenik, baina hori ez dago ezker abertzalearen eskuetan.



Grafiko hau opari mundu aberatseko suminduei

Ekonomistek diote ekonomia finantzarioaren azpian benetako ekonomia dagoela. Ekonomia ekologikoa lantzen dutenek, aldiz, hirugarren geruza sakonagoa aztertu beharra aldarrikatzen dute: materiazko baliabideek, funtsean energiak, osatutako ekonomia bene-benetakoa. Pedro Prietok grafiko batean laburtu du munduaren ikuspegi hau.

PEDRO PEREZ PRIETO AURKEZTEN ez gara hasiko, ARGIAko irakurleek ezagutu dute Unai Break egindako elkarrizketa luze oparoan. Ingeniaria, Asociación para el Estudio de los Recursos Energéticos (AEREN) elkarteke buruzagitzakoa, Prieto da gaztelaniaz petrolioaren gainbeheraz eta energia krisiaz garbien idatzi duten aditueta bat.

Joan den urrian Prietok *Crisis Energética* gunean *Un mensaje a los indignados occidentales* plazaratu zuen, urtea amaitzen ari den honetako balantze eta gogoeta giroari oso ondo egokitzen zaiona. Artikuluan eskaintzen du guk irudiaren txokoa euskaratuta eskaintzen dugun grafiko. Egia esan, grafiko horrek argitzen eta laburbiltzen ditu munduak gaur bizi dituen gatazkak nagusiak, militarrek, ekonomikoak, sozialak, demografikoak... Artikuluak baino liburuak ere eragin ditzakeen grafiko da.

Prieto pozik azaldu da mundu osoan sumindu, *indignado* eta *ocupy* jendeak azken hilabeteotan sistema aldatzeko erakutsi duten nahikeriagatik. Ez zuen horrelakorik espero, kalera protestan irten direnek lortu baitute hedabide nagusiek agintean daudenen alde eraikitako hesia gainditzea. Gainera, hasieran agintari politikoen kontra aritu ostean laster benetako aginteei aurre egin nahia

azaldu dute, burtsei, finantza erakundeei, munduko eliteei.

Prietok barkatzen du *indignado*-en proposamenen lausotasuna, sinpleria nahi bada. Alabaina luzatzen die munduaren egoera ikuspegi osoago batetik aztertzeke konbitea. Horretarako da aipatu grafiko, guk, laburtzearen, “Energia kontsumoa munduan, eskualdeka eta pertsonako” izendatu duguna.

Koadroak munduko jendea eskualdeka banaturik biltzen du, zonalde bakoitzari zutabe bat eskainita. Zutabeen zabalera eskualdeetan bizi diren milioika biztanleen arabera aldatzen da; altuera, berriz, eskualde bakoitzean herritar bakoitzak kontsumitzen duen energiaren arabera. Zutabea kolorez osatzen da, kontsumitzen dituen energi iturri ezberdinak nabarmentzeko: petrolio, gas naturala, ikatza, nuklearra, hidroelektrikoa, biomasa gehi hondakina, eta azkenik energia berriztagarri modernoetatik eskuratua, eolikotik eta fotovoltaiкотik.

Eskualde bakoitzak kontsumitzen duenaz informazio gehiago bada. Esaterako, zenbaki gorritz markatuta dauka bakoitzak zenbat energia erretzen duen munduko kontsumo osoarekin alderatuta. Zenbaki berdez datoz eskualdearen biztanleak munduko guztiekin alderatuta. Eta kontsumoak alderatu ahal izateko,

Irudi honek aberasten du *Crisis Energética* webgunean Pedro Perez Prietok plazaratu *Un mensaje a los indignados occidentales* artikulua. Beste bi erakunderen logoak ageri ditu: Científicos por el Medio Ambiente (CIMA) elkartearena eta *Pik Oil*aren ikerketan liderra den ASPO erakundeak Espainian ordezkari daukan Asociación por el Estudio de los Recursos Energéticos (AEREN) delakoarena. Kontsumitzaile handienak AEB-Kanada, Errusia, Japonia eta Europa dira. Nabarmen geratzen da herrialde baten Barne Produktu Gordina, estu lotuta dagoela energia kontsumoarekin. Nabardura azpimarratzeko, energiaren erabilera bakoitzak lortzen duen eraginkortasuna begi bistan azaltzen da bi datuak alderatzean: Txina, Errusia eta AEB-Kanadak efikazia kaxkarrez xahutzen dute energia. Aldiz, bi parametrok erakusten dute argiki Asia, Afrika eta Indiak bizi duten bazterketa ikaragarria.

watioa darabil Prietok irizpide bakar-tzat.


Lehen begiradatik ohartzen da bat mundua oker dagoela. Eskubiko muturrean AEBk eta Kanadak buruko 10.500 watio kontsumitzen dute. Hau da, munduko biztanleen %5,1 izanik energiaren %21,5 erretzen dute. Ezkerreko muturrean, Indian mundutarren %17,7 izan arren energiaren %5,1 daukate erregai.

Munduko biztanleok batz best 2.500 watio kontsumitzen badugu —munduak iraunkor izatekotan gehienez onartuko lituzkeen 2.000 watioen gainetik beti—, horren azpitik bizi dira Afrikan, Asia gehienez Txinan barne, eta Latinoamerikan, Karibea barru. Batez bestekoaren inguruan dabilta Turkian eta Europako herrialde atzeratuenetan. Batez bestekotik gero eta urrunago Sobiet Batasunean izandakoetan, Ekialde Hurbilean, European, Japonian, Errusian eta, azkenik, AEBetan eta Kanadan.

Eta langileen internacionalismoa?

Bada informazio osagarri bat gehiago grafikoan, eskualde bakoitzak daukan Barne Produktu Gordina (BPG) tanta gorrietan ageri da. Kasik automatikoa da herrialde baten aberastasuna neurtzen duen BPGren eta energia kontsumoaren arteko lotura. Hortik aurrera hasten

Energia kontsumoa munduan, eskualdeka eta pertsonako



sakrifikatu beharko dugu. Horrela mintzo dira matematikak.

Egia da eskualde bakoitzean aberastasuna oso ezberdin dagoela banatuta, elite murrizt batzuek sekulako pilak metaturik. Dirudun horietako batzuek herrialde osoek adina ondasun dauzkate. Horiek utzi beharko lukete gehien denen mesedetan. Baina aberatsak desjabetzea ez litzateke aski izanen. Has-teko, horiei kendutako dirutzak –aitor dezagun fikzio-politika hutsen baino ez garela ari– ezin dira lehengai edo energia bihurtu automatikoki, munduak dauzkan baliabideen oso gainetik metatutako espekulaziozko fortunak dauzkate.

Hala ere, okerrera ez da hori gu bezala langile garen edo klase ertain izateko amets bezala bizi garenontzako: grafikoak erakusten duen mundua orekatzekotan herrialde aberatsetako klase ertainek uko egin beharko litzateke lorpen askori, funtsean ongizate gizartea deitu zaion honi.

Ongizate gizartea langileek urte askotako borrokarekin lortu dutela esanda egiaren zati bat diogu, Prietoren ustean. Herrialde aberatsetako klase ertainei hobekuntza batzuk baimenduz, elite dirudunek langileak konplize bihurtu dituzte munduko gainerako txiroak zuzutzeko. “Gutxi egin genuen –dio Prietok– mendebaldeko klase ertainok galdatzeko geure gizarteetan gutxiago kontsumitu eta xahutzea eta munduko txiroenei oinarritzko ondasun gehiago ematea. Orain eduki dezakegu aukera internacionalismo proletarioa zer den berriro ulertzeko”. ■



dira interpretazioak. Gordinak, Pedro Perez Prietoren ustez.

Vilfredo Paretok ezarri legea konplutuz, gizadiaren %80 bizi da kontsumitzen den energiaren %20ekin, eta alderantziz, %20k xurgatzen du dagoenaren %80. Desoreka hori lotuta dago planeta-ko isuri gehienekin: energia eta lehengaiak txiroen eskuetatik aberatsenetara doaz, aldi berean –gezurra dirudien arren– txiroak zorpetuta dauzkate herrialde aberatsek... eta emigrazioak ere txiroetatik aberatsetara doaz, energiarekin batera.

Jakinik planetari kentzen zaiola modu iraunkorrean eman dezakeena baino %40 gehiago, mundu osoa gehiago garatzea jasan ote lezake planetak? Bestela esanda, zer geratuko


litzateke batez bestekoaren azpitik bizi diren txiroak garatuko balira? Grafikoa itxuraldatu dezakegu –artikulu egin du Prietok– erakusteko zenbat igoko litzatekeen kontsumoa mundu osoan txiroenak Europako jendearen mailara eramanez gero, gaurkoaren bi halako energia beharko genuke. Eta denok *american way of life* nahi izanez gero? Gaurko energia kontsumoa bider bost. Denetara, planetak dezakeenaren 5-8 halako.

Iraunkorra izateko, munduak gaur xahutzen duen energiaren %40 sakrifikatu beharko luke. Baina gizadiaren gehiengoa batez bestekoaren azpitik dagoenez, denon egoera berdintzekotan ipar eta mendebalde aberatsetako herritarrok gure kontsumoaren %60 edo %90



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Teresa Monge Martinez *

18 urte gehiago bizi izan naiz

Duela hamazortzi urte, abenduaren 14an, berriro jaio nintzen, seme gaztearen giltzurrunak ematea erabaki zuen eta ezagutzen ez dudana familia bati esker. Uribe Kosta inguruan zebilen furgoneta baten kargak buruan jota hil zen gaztea. Bere giltzurrunetako bat niri “tokatu” zitzaidan... Gazte horren senideei esker, beste hamazortzi urtez bizi izan naiz. Beti izan dut familia hori ezagutzeko eta nire esker-ona azaltzeko gogoia, dialisiarekin bost urte luze eta latz eman ondoren, ihesi zihoakidan bizitza eman baitzidaten. Organo hura garaiz iritsi izan ez balitz, askoz lehenago galduko nukeen bizia. Berriki hil naiz, pasa den azaroaren 30ean, eta amorrazio gehien eragin didana nire gorputzean bizirik zegoen giltzurrun hori –nire heriotzak ez du zuzenean zerikusirik izan egoera ezin hobean zegoen giltzurrunarekin– beste inork, nik bezala, jaioberritzeko aprobeztatu ez izana da.

Ezagun ditut organo emaileen anoni-motasunari buruzko protokoloak. Hala ere, gaztearen senideei hamazortzi urte gehiago eman zizkidan giltzurrunagatik eskerrak eman nahiko nizkieke. Bizirik nintzela ez nuen lortu, orain “beste dimentsio” batean nago, eta, mezu hau iristen bazaie nire bikotekidearekin (Juan Mari Arregi) harremanetan jartzea nahi nuke; helbidea aldizkari honetan lor dezakezue. Nik biziraun nezan organo haiek urgentziaz eraman zituzten erizainei, medikuei eta anbulantzia gidariei ere eskerrak eman nahi dizkiet, transplanteak koordinatzen dituen talde osoari ere bai.

Halaber, transplante ebakuntzan parte hartu zuten mediku eta erizainei, eta azken hamazortzi urteotan aldian behingo berrikusteen bidez lagundu didatenei eskerrak eman nahi dizkiet. Bereziki, Basurtuko Ospitaleko Cabrera eta Vigón doktoreei, transplantea baino lehen dialisi urte gogorretan lagundu zidatelako. Transplantea egin zidan Amenabar doktoreari, eta transplantearen ondorengo hamazortzi urteetan, Gurutzetako ospitalean berrikusteak egin zizkidaten Sofia,



Lampreabe, Muñiz eta gainerako doktoreei. Ez ditut ahaztu hainbeste ospitale-ratzeetan lagundu nauten Gurutzetako eta Basurtuko Larrialdietako langileak. Hau da nire azken mezua: bizitza maite duenak jakin dezala, egunen batean hil arren, bizitzak beste pertsona batean jarraipena izan dezakeela, organoak eman baditu.



Gaztearen senideei hamazortzi urte gehiago eman zizkidan giltzurrunagatik eskerrak eman nahiko nizkieke.

Bizirik nintzela ez nuen lortu, orain ‘beste dimentsio’

batean nago, eta, mezu hau iristen bazaie nire bikotekidearekin (Juan Mari Arregi) harremanetan

jartzea nahi nuke; helbidea aldizkari

honetan lor dezakezue



Giltzurrunetakoa ez da bizitzan izan dudana gaitz bakarra, eta horregatik, duela hogeitabi urte, artean dialisia hartzen nuela, Basurtuko Ospitalean bihotz ebakuntza larri eta zaila egin zidaten mediku eta erizainei ere eskerrak eman nahi dizkiet. Gogoan ditut, bereziki, ebakuntza egin zuen Zuazo doktorea eta azkeneraino jarraipena egin zidan Arrillaga doktorea. Azkenik, urte hauetan lagundu dida-zuen eta nire agurrean parte hartu duzuen senide eta lagunei eskerrak eman nahi dizkizuet. Bereziki Maribe, Txaro eta Pedro aipatu nahi nituzke. Maite zaituztet. Ez izan triste, egun zoriontsu baten ondoren heldu baitziztaidan ordua.


Beste dimentsiotik: agur eta beti arte. ■



* Teresa Monge Martinez Argiako kazetari Juan Mari Arregiren (Daniel Udalaiz) bikotekide zendu berria da.

ASTE HONETAKO

zozketa



Iriarte Jauregia

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Eliz-Bailara 8
Bidegoian GIPUZKOA

www.iriartejauregia.com

1



Urbano Jatetxea

Afaria 2 lagunentzat

Abuztuaren 31, 17
Donostia GIPUZKOA

www.restauranturbano.com

2



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

3



Xabier Lete Zuzenean

Errenteria 1999.IX.25
Azken kontzertua

5 CD opari

A&M PROMOTORA
Donostia GIPUZKOA

jarbelaitz@gmail.com

4



Taula eta Egutegia 2012

Taula bat
egutegiarekin opari

www.argia.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2302. Argia)

SAUSTA JATETXEA

- Antton Idiakez Korta (Ezkio-Itsaso)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Alex Mungia Idarreta (Donostia)
- Maria Jesus Irizar Gisasola (Antzuola)
- German Orbegoiz Orbegoiz (Donostia)
- Ardatza Aldizkaria (Gasteiz)

ARTIUM Arte garaikideko euskal zentro museoa

- Maritxu Dorronsoro Arostegi (Lazkao)
- Amurrioko Aek Euskaltegia (Amurrio)
- Maialen Carpintero Navarro (Eraso)

JORGE OTEIZA FUNDAZIO MUSEOA

- Miren Itziar Enbil (Deba)
- Luis Angel Agirre Muxika (Tolosa)
- Xabier Zuzuarregi Salaberria (Zizur Nagusia)

PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTS Irrien lagunak DVDa

- Lurdes Uzkudun Etxenagusia (Errezil)
- Iñaki Campos Hernandez (Iruñea)
- Iñaki Zipitria Urkizu (Lezo)
- Eihar Egaña Garcia (Donostia)
- Gaintzako Udal Liburutegia (Gaintza)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzearra, 1
Zumartegi industrialdea
© 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

